



# Pil-pilean

INDUSTRIA

Soraluzeko hilabetekaria  
2022ko ekaina · 387 alea

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**

TURISMOARI BURUZKO GEHIGARRIA



**ALDAKETA URTEA  
KOMERTZIOETAN**



# PIL-PILEAN 387

2022ko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- |    |   |   |
|----|---|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Miriam Colls  | IRITZIA   |
| 6  | <b>Begira</b> Aditu europarrak ibaiari begira   | 3 <b>Neuretik</b> Oier Zubizarreta <i>Bizitza baina nola bizi</i>           |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak  | 18 <b>Gutunak</b> Antton Alberdi <i>Presak eraisteari buruzko eztabaida</i> |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> III. Errugbi Eguna   | 18 <b>Komiki tira</b>   |
| 16 | <b>Ugaraxo</b>  | 19 <b>Hausnarketa</b> Pertsona bat kalean                                   |
| 20 | <b>Erreportajea</b> Aldaketa urtea herriko komertzioetan  | 19 <b>Puntua</b> Gotzon Elizburu <i>Hemen dago jada</i>                     |
| 27 | <b>Kirola</b> Marras Irristaketa Taldea, Sora Futbol Taldea, Soraluze Pilota Elkartea eta Sorabox |   |
| 29 | <b>Kultura</b> San Andresko jaiak   |   |
| 30 | <b>Gure artistak</b> Imanol Lopez Artolazabal   |   |
| 32 | <b>Sakonean</b> Agur Santa Ana 2-ko etxeari.  |   |
| 34 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...                                  |   |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

**SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Bizitza baina nola bizi



OIER ZUBIZARRETA

**D**enbora luzea noa mundura zertara etorri naizen argitu nahian, zein den nire eginkizuna edo betebeharra bizitzan, zer den zoriontsu izatea edo bizitzea, baina ezin erantzunik topatu eta, seguruenik, bizitza hau pasatuko zait erantzuna topatzen.

Zorioneko naizela esaten didate askotan, lana ta dirua dauzkadalako, baina nik bizitza alperrik galtzen nagoela uste dut, ez nagoela nahi nukeen bizitza bizitzen, lagatzen didatena baizik.

Ez dut ulertzen nola biziraun dezakegun horrela; lanean pasatzen dut egunaren herena, nire buruarekin, familiarekin eta lagunekin bizitzaz gozatzen egon beharrean. Astean bost egunez lo, soldatapeko lana egin eta jan, bi egun aisialdirako eta atsedean hartzeko. Horrela hamaika hilabetez, hilabete bat opor edukitzeko, urte guztian egin ezin izan dudana egin ahal izateko, diruak aukera ematen badit gutxienez. Horrela erretirora iritsi arte. Jubilatzen banaiz bizitzaz disfrutatzeko eskubidea izango dut bestela ez dut aukerarik edukiko hainbeste denboran ordaindu ditudan opor luze horrek gozatzeko. Zergatik egon behar naiz erretirora heltzeko zain bizitzaz gozatzeko?

Soldatapeko lana eta eguneroko beste gauzak kudeatzea zaila egiten bazait, ez dakit nola uztartu ahalko nituzkeen zaintza eta lana. Nire ustez zaintza lanek denbora eta dedikazioa eskatzen dute, eta lanarekin uztartzea ez da erraza. Horretan ari zaretenok ez dakit nola egiten duzuen, baina, txalo piloa zuentzat, ni ez dakit kapaz izango naizen tokatuz gero.

Ez dakit zein den konponbidea, nola bizi eta antolatu beharko ginatkeen denok gure beharrak asetu eta zoriontsu izateko (ez dut oso garbi zer den zoriontsu izatea), baina argi daukat soldatapeko lanak duintasuna ematen didala esaten duen sistemak honek ez nauela konbentzitzen.

Ni Oier naiz lan egin ala ez. Soldatapeko lanak ez nau pertsona hobe edo txarragoa egiten, soldatapeko lanak denbora lapurtu besterik ez dit egiten. Ez dut bizitza soldatapeko lanean pasa nahi, ez dut egin ez dudana damutu nahi; momentu oro disfrutatu nahi dut, gaztetan, zahartzaroan, garai guztietan. Nire buruarekin ta maite dudana jendearekin.

**BIZITZA ALPERRIK GALTZEN NAGOELA USTE DUT, EZ NAGOELA NAHI NUKEEN BIZITZA BIZITZEN**

# “Presek kalte egiten diote ibaiaren osasunari”

---

**MIRIAM COLLS** BIOLOGIAN DOKTOREA (EHU)

TESTUA: AINARA ARGOITIA (BARREN) ETA EGOITZ UNAMUNO.

---

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean dihardute Merlin egitasmo europarra Deba ibaian baliatzeko helburuz. Sustatzaile talde horretako kidea da Miriam Colls biologoa.

## **Zertan datza Merlin proiektua?**

Europako ibai ekosistemen funtzioak leheneratzeko proiektua da Merlin, Europako Batasunak finantzatutakoa (22 milioi euroko aurrekontua du), eta Europa osoko 44 eragilek parte hartzen dute bertan, tartean EHUKo ikertzaileek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektu horren baitan Finlandiatik Israelerainoko 17 puntu aztertuko dira (ibaiak, hezeguneak eta errekek), egoera naturalago batera bueltatzeko.

## **Deba ibaiari ere eragiten dio proiektuak. Nola?**

Ibaiak ekosistema adarkatuak dira eta bizidunak sare horretan mugitu behar izaten dira, baina gertatzen dena da ibaiak oso zatituta ditugula. Horregatik, aktiboan ez dauden hamar presa bota nahi dira Deba ibaian, presek ibaiaren konektagarritasuna eta espezieen mugikortasuna zailtzen dutelako. Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak egingo ditu obrak.

## **Zer ezaugarritako presei eragiten die zuen proiektuak?**

Gipuzkoa osoan 1.000 bat presa daude eta horietako %70 inguru zaharrituta daude. Deba ibaian bota nahi ditugunak ere ez dira erabiltzen eta hamar dira: Altzolabekoa Elgoibarren, Santanakoa Mendaron, Soraluzeko lau, Bergaran bi eta Arrasaten beste bi (udan botako dituzte Altzolabekoa eta Mendarokoa). Zentral hidroelektrikoei lotutako presak ustiatzeko baimenak urte askorakoak izaten dira normalean eta Soraluzen baduzue halako bat. Hori ez dugu ukituko. Presak duen saltoaren arabera, energia gehiago edo gutxiago sortzen da eta 2-5 metro arteko altuera dutenetan energia oso gutxi sortzen da. Gipuzkoan 50 bat zentral hidroelektriko daude eta denen artean lau haize-errotak beste energia sortzen dute.

## **Ibaiak zatituta ditugu. Zer eragiten du horrek?**

Kalterik agerikoena da arrainek ezin dutela ibaian gora egin arrautzak errutera, eta horrek espezie horien desagertzea dakarrela. Baina horrek ekosistema oso batean dauka eragina, arrain horiez gain badirelako beste izaki asko zatiketak kaltetzen dituenak. Era berean, ibaia zatituta egoteak mikroorganismoetan ere badauka eragina. Ibaiek autoarazteko gaitasuna dute, hau da, inpaktuak xurgatzeko gaitasuna dute, eta gaitasun hori oso lotua dago beren osasunari. Eta presek ibaiaren osasunari kalte egiten diote, habitat artifiziala sortuz bertako espezieak kaltetzen dituztelako.

## **Nola eragiten dute uholdeetan?**

Uholdeen gainean duten eragina presaren tamainari lotuta dago. Presa oso handiek, Urkulu edo Añarbekoa bezalakoek, uholdeak murrizteko gaitasuna dute, ura metatu eta poliki askatu baitezakete. Baina presa txikiek ez dute hori egiten. Kontrakoa: presa horiek uraren maila igo egiten dutenez, uholdeen larritasun handitu egiten dute, zubien zutabeek egiten duten modu berean. Soraluzeko kasua URA agentziak oso sakon ikertu du, eta ereduak erakusten dute Malmero eta Igarateko presak kenduta uholdeen arriskua nabarmen murriztuko litzatekeela.

## **Zein fasetan dago prozesua?**

Maiatzean, herritarren iritzia jasotzeko tailerrak antolatu genituen, horietako bat Soraluzen. Ekainean, Europako hainbat herrialdeetako adituak etorri dira bailarara, Deba ibaia ezagutu eta bertan planteatzen diren aktuzioen inguruan eztabaidatzera. Udazkenean, herritarrak informatzeko saio bat antolatuko dugu Soraluzen eta bertan proiektuaren gaineko xehetasunak emango ditugu. Urak Agentziak ere parte hartuko du. Horren ostean, gainerako udalek bezala, Soraluzekoak ere erabaki beharko du zertarako baimena ematen duen. 2025era arteko epea dugu proiektua gauzatzeko baina kontuan izan behar da lanak udan bakarrik egin daitezkeela.



# Aditu europarrak ibaiari begira

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

Joan zen martitzenean Europako hainbat herrialdetatik etorritako adituak ibili ziren ibetondoan. Norvegia, Alemania, Ingalaterra, Belgika, Italia, Portugal eta beste herrialde batzuetatik iritsitako biologo, ikertzaile eta ur agentzietako teknikariak ziren, Gipuzkoako Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak gonbidatuta, Deba ibaiaren berreskuratzeko helburuz, Merlin egitasmoak bertan burutu nahi duen proiektuaz eztabaidatzera etorri direnak. Martitzenean Deba bailarako hainbat herritan izan ziren, tartean Soraluzen, presei, zubiei eta ibaiaren inguruan eraiki ditugun elementuei begira. Hurrengo bi egunak Donostian eman zituzten, proiektuaren gainean eztabaidatzen, aukerak eta arriskuak aztertzen. Udazkenean, proiektuaren bultzatzaileek informazio osatua emango dute herrian eta tartean izango dira aditu horiek emandako iritziak.







Lino Alberdi eta Andres Mazkieran Soraluze Kooperatibako sarreran.

# Konpromiso soziala

2006tik, Soraluze Kooperatibak 800.000 euro baino gehiago eman dizkie Soraluzeko zein Bergarako elkartei edo proiektuei, eta beste horrenbeste banatu dute talde mailan, DanobatGroup-etik

Sasoi batean, ohikoa zen enpresen irabazien zatitxo bat enpresaren sorteriari ematea, bertako egitasmoak bultzatzeko edo langileendako etxeak edo bestelako azpiegiturak eraikitzeko. Soraluzen, besteak beste, Calongeko etxeak eta Txurrukenekoak herriko hainbat lantegik eraiki zituzten.

Zoritxarrez, ohitura hori galtzen joan da eta, gaur egun, enpresa gehienek kontribuzio sozialak egiten dituzten arren, gutxi dira inguruko elkartei edo proiektuei zuzeneko laguntzak ematen dizkietenak edo inguruarekiko konpromiso soziala dutenak. Horien artean daude kooperatibak. Besteak beste, kooperatiben legearen

arabera, legez, irabazien %10a bideratu behar dute laguntza sozialetara. Beste kasu guztietan, irabaziak enpresako jabeen artean banatzen dituzte.

## "Diru asko"

Soraluzeren kasuan, sorteriaren izena daraman Soraluze Kooperatibak urtero ematen ditu laguntzak.

"Etekinen %2a Mondragon Taldera bideratzen dugu, batik bat, unibertsitatara eta euskara planetara. %4a, berriz, DanobatGroup-era bideratzen dugu, eurek kudeatzeko laguntzak. Eta etekinen %4a Bergarara eta Soraluzera bideratzen dugu, gertuko proiektuetara", esplikatu du

## Lagundutako batzuk

- Caritas
- Sora Futbol Taldea
- Musika Eskola
- Atxolin Guraso Elkarte
- Pilota elkarte
- Plaentxia Eskola
- Antzokiko proiektorea
- Mendi taldea
- Lamoten liburua
- Kontrargi...

Lino Alberdik, Soraluze Kooperatibako presidente ohi eta bazkideak.

Kopurutan, "diru asko da", dio hark. "2006tik -datuak ordenatu dituztenetik- 800.000 euro baino gehiago banatu ditugu Soraluzen eta Bergaran; 16 urteotan, beste horrenbeste banatu dugu talde mailan eta horren erdi bat-edo Mondragon Taldearen bitartez". 2006tik, 2 milioi euro inguru bideratu dituzte laguntzetara, baina 1962tik ari dira egiteko hori betetzen. "Hau egin beharreko zerbait bezala hartzen dugu eta plazer guztiarekin egiten dugu. Gainera, eman dugun guztietan sekula ez dugu kontaktu" dio soraluzetarrak -kazetaria galdezka joan den arte-.

## Puntuazioaren arabera

Laguntzak banatzeko irizpideak zehaztuta dituzte.

**"HAU HARTZEN DUGU EGIN BEHARREKO ZERBAIT MODUAN ETA PLAZER GUZTIAREKIN EGITEN DUGU"**



"Proposamenak aurkezten dira premien arabera. Urriaren amaierara arte dago eskaerak egiteko epea eta Kontseilu Errektoreak dituen baremoen arabera puntuatu egiten dira. Adibidez, arlo sozialeko eskaerak puntuazio altuagoa dute, zenbat eta jende gehiagori eragin orduan eta laguntza handiagoa eskuratuko du... Puntuazioaren arabera banatzen da dirua. Iaz, 44.000 euro banatu genituen Soraluze. Premia duenak eska dezala, ahal bada, guk lagunduko dugu", esan du Alberdik.

### Joateko asmorik ez

Konpromiso sozialaz gainera, sorterriarekiko atxikimendua ere badu Soraluze Kooperatibak. Une honetan, planta berria eraikitzen ari dira Osintxun, oraingoaren ondoan. Soraluze Kooperatibako Andres Mazkieran presidentek kontatu duenez, Bergarako plantaren partez eraikiko dute: "Planta handitu eta modernizatu egingo dugu. Bergarako plantak 40 urte pasa zituen eta ezin genezakeen obra berririk egin. Hemen eraikitzen



Pabiloi berriko lanak.

ari garen pabiloia handiagoa izango da eta lan gehiago egiteko aukera eman nahi dugu". Kokaguneari buruz galdetuta, Alberdik azpimarratu du Soraluze ez daukala asmorik "bailara honetatik beste inora joateko. Bere egunean izan genuen Gasteizera joateko aukera. Hemengo pabiloia egin aurretik eskaini ziguten Gasteizen terrenoa doan. Hala ere, apustua egin genuen hemen mantentzeko. Inguruko herriekin dugun konpromisoa argia da", esan du.

## 'Osintxu Bizi', auzoarekiko konpromisoa

2020tik, Osintxu Bizi proiektuko parte ere bada Soraluze. "Auzokideak, Bergarako Udala eta Soraluze gaude. Datozen bi urteetan, urtero auzoan 30.000 euro inbertitzeko konpromisoa hartu dugu. Adibidez, Osintxuko Haurreskola martxan jarri dugu. Ume nahikorik eta aurrekonturik ez zegoen eta Bergarara joan behar zuten. Gure laguntzarekin martxan jarri dugu. Bost ume hasi ziren eta datorren ikasturterako 11 edo 13 ume daude. Gainera, kooperatibako jantokira (Txuringo alokatuta dugu) datoz bazkaltzera", esplikatuta du Mazkieran presidentek. Bestelako ekintzen artean, berriz, Osintxuko fatxadaren bat margotu dute eta industrialdea zaharberritu egingo dute, besteak beste, han jantoki propioa egokituz.

## Udazkenerako gertu

Ekaina hasieran hasi zituzten enplegu eta gizarteratze zentro berria egokitzeko obrak, Kalebarrengo 8. zenbakian. Helburua da bazterkeria arriskuan dauden pertsonen arreta emateko zentroa zabaltzea, enplegu duina lortzera bideratutako ibilbide pertsonalizatuak eskainiz. Gipuzkoako diputazioiak diruz lagunduta egingo dute egokitzapen obra. Eraikinak bi solairu ditu eta biak lotzeko barne eskailera eraikiko dute eta irisgarritasun baldintzak bermatzeko igogailua.

Lanek lau hilabete iraungo dute eta lizitazioaren aurrekontua da 359.586,23 BEZ-a aparte.

## Udalekuak eta udako ekintzak

Uztailaren 4an abiatuko dira Kukumixok antolatutako udalekuak. Aurten, 169 ume ibiliko dira udalekuetan.

Bestalde, Kukumixoren eskutik, baita ere, DBHko 1. eta 2. mailakoei zuzendutako udako ekintzak izango dira. Bi ekintza antolatu dituzte gazteentzako: hondartzara irteera uztailaren 18an eta mendira irteera uztailaren 19an, gaua San Andresen pasatuz. Izena emateko epea zabalik dago uztailaren 1era arte, online edo udaletxeko harreran. Bigarren urtea da DBHkoendako ekintzak antolatzen dituztela, gazteen eskaria aintzat hartuta.



Iker Aldazabal eta Markel Olano SAPAko lehen eraikinean.

# SAPARI babesa Aldunditik

SAPAKo lehen eraikina birgaitzeko 700.000 euroko laguntza emango dituela berretsi zuen Markel Olano diputatu nagusiak. Udalerriarentzako "ezinbesteko" ekimena dela esan zuen

Herriaren etorkizunari lotutako egitasmo nagusiak partekatzen eta Etorkizuna Eraikiz kapsularen bitartez jasotako ekarpenak aztertzen izan zen Markel Olano diputatu nagusia ekainaren 17an. Udaletxean, Udal Gobernuko zein oposizioko kideekin egin zuen batzarra, baina lehenago, SAPAKo lehen eraikina bisitatu zuen. Han berretsi zuen Diputazioak 700.000 euroko "babesa" emango diola Soraluzeko Udalari, "SAPAREN eraikin historikoa birgaitzeko". Olanok azpimarratu duenez, "proiektu hau kualitatiboki oso garrantzitsua da lurralde osorako, lurraldea orekan eta Soraluzeren garapen sozial eta ekonomikoan eragin zuzena

duelako". Aldazabalek, berriz, gogora ekarri zuen erabilera anitzeko gune estali bat lortuko dutela soraluzetarrek.

### "Desegokia"

Oposizioko bozeramaile Unai Larreategik, berriz, Etorkizuna Eraikiz kapsulako ekarpenak nabarmendu ditu. "Ia 500 eskaera jaso ditu Diputazioak, zorionak iritzia eman duzuen guztioi. Desegokia izan da ordea Diputazioaren zein Udalaren partetik herritarren eskaerei erantzun ordez, nola baliatu duten Markel Olanoren bisita SAPAKo zati baten egin nahi duten parke estaliaz jarduteko. Horrela ez dago etorkizunik eraikitzerik Soraluzerako".

## Karakatekiko kezka

Etorkizuna Eraikiz kapsulari dagokionez, 491 ekarpen batu zituzten, Gipuzkoako gehien. Horietatik gehienak, %27,5 (136) ingurumenarekin lotutakoak izan ziren, nagusiki (90 ekarpen) Karakaten eolikorik ez ipintzeko zein Karakate babesteko eskaerak.

Azpiegiturak izan ziren bigarren eskatuenak, %21,6 (110 ekarpen), horietatik 37 denda gehiago ipintzeko eta 21 garbiketarekin lotutakoak, adibidez, zakarrentzi gehiago edo komun publikoak ipintzeko eskaerak.

Mugikortasunarekin lotutako ekarpenak, berriz, %16,9 izan ziren, batik bat, garraio publikoa hobetzea eta baita Maltzagaranzko bidegorria ere.

### Aurrekontu Irekietan

Gipuzkoako Foru Aldunditik diotenez, ekarpen horietatik Diputazioaren eskumenekoak diren gaiak Aurrekontu Irekien dinamikan inorporatuko dituzte. Eskumetik kanpokoak, berriz, Udalari entregatzen zaizkio.

Kezka-iturri nagusi den eolikoei buruz Udalean galdetuta, berriz, alkateak esan du "aspaldi" dutela trasladatuta ez daudela proiektuarekin konforme.



Karakateren balioak ere nabarmendu dituzte iradokizunen gaineko txostenean.

# Karakate babesteko eskaera

Energia berriztagarriak ezartzeko baztertutako eremuen artean Karakate sartzeko eskatu du Udalak

Soraluzeko Udalak iradokizunak aurkeztu dizkio Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) Aurre-dokumentuari eta Hasierako dokumentu

estrategikoari. "Soraluzeko Egitamu Orokorrean jasotako Karakateko babestutako esparruak duen ingurumeneko eta ondarearekin lotutako balioak" ezagutaraztea da aurkeztutako iradokizunen

helburua, "Karakateko esparru hori energia berriztagarriak ezartzeko baztertutako eremuetako batean integra dezaten", hain justu.

## Balioak nabarmendu

Aurkeztutako txostenaren bitartez, Udalak gogora ekartzen du LPS-aren arabera, Karakate ez dagoela integratuta "ez energia fotovoltaikoarentzat, ez energia eolikoarentzat aintzat hartutako eremu optimoen" artean. Gaineratu du, halaber, Karakateko esparru gehiena sartuta dagoela energia fotovoltaiakoari, energia eolikoari, biomasari, energia geotermikoari eta energia mini hidroelektrikoari dagozkien baztertutako eremuen artean.

Horrekin batera, Karakatek dituen balio faunistikoak, naturalistikoak eta arkeologikoak azpimarratu ditu Soraluzeko Udalak, gogora ekarriz, Soraluzeko Egitamu Orokorrean arabera, ezin dela bertan egin balio horiek aldatzea edo aldatzea dakarren proiekturik.

## Basoa baso zerk egiten duen ikasteko ibilaldi gidatua antolatu dute

Soraluzeko Baso Biziak elkarteak ibilaldi gidatua antolatu du. Uztailaren 2an izango da eta antolatzaileek iragarri dutenez, Lurguia Fundazioko adituek baso bat zer den azalduko dute, hain justu ere, zerk egiten duen basoa baso.

Azpimarratu dutenez, bisita gidatu hori aukera ona izango

da "ikasiz, naturaz gozatu eta mendian ibilaldi bat egiteko". Gaineratu dutenez, uztailaren 2ko ibilaldi gidatua Sagar Erreka haranean izango da eta bertan, Baso Biziak elkarteak bere jabetzan duen lur saila bisitatuko dute eta zaintzarako hitzartu berri duten Malkorra izeneko parajea bertatik bertara ezagutuko dute.

## Ekainaren 30

Ibilaldi gidatuan parte hartzeko izena ekainaren 30a baino lehen eman beharra dago. Online egin behar da inskripzioa, honako helbide bietako baten bitartez: [info@lurguia.org](mailto:info@lurguia.org) edo [soraluzekobasobiziak@gmail.com](mailto:soraluzekobasobiziak@gmail.com) helbidera eta eman behar dira izen-abizenak, adina, telefonoa eta herria.

Bisita gidatuari dagokionez, 09:00etan abiatuko da ibilaldia Zubi Nagusitik.

# Euskaraldiaren lorpenak

Udazkenean egingo dute Euskaraldiaren 3. edizioa eta ekimena abiatu dute herritarren orain arteko lorpenak jasotzeko.

Euskaraldiaren Batzordeak #HitzezEkitekoGaraia ekimena abiatu du, orain arteko bi edizioen ostean, herritarrek hizkuntza ohituretan izan dituzten lorpenak jaso eta gizarteratzeko helburuz. Horretarako, testigantzak erakusteko taula bat ezarri dute Kalebarrenen eta online galdetegi bat bidaliko diete 2020ko edizioan parte hartu zuten 500 plazentziatarrei. "Zer

lortu duzu Euskaraldiari esker?" izango da galdera eta galdera horri erantzunez, herritarrek euren testigantzen berri eman ahalko dute.

## Hainbat lorpen

Orain arte jaso dituzten testigantzen artean, herritarrek hainbat lorpen aipatu dituzte, esaterako: elkarriketa elebidunak, lehen hitza euskaraz egitea, harremanak



Taula Kalebarrenen.

euskarara aldatzea, ikasteko motibazioa, hitanoa erabiltzea... Hizkuntza ohitura edo arau berri horiek gizartean indartzea izango da datorren edizioaren helburua.

## Herritarren testigantzak



**CRISTINA CUENCA GALLEGO**  
GURASOA

"Euskaraldiak motibatu ninduen AEKren euskaltegian apuntatzera".



**XABIER ALBERDI**  
FABRIKAKO LANGILEA

"Lankide batekin lehen gazteleraz egiten nuen. Orain nik euskaraz, berak gazteleraz".



**MARTIN AZKARATE**  
TABERNARI OHIA

"Euskaraldian tabernan hainbat bezerok euskaraz egin zidaten lehen aldiz. Sorpresa onak".



**BEGO SAN MARTIN**  
UDAL-LANGILEA

"Leihatilan euskaraz gehiago egin nuen urtean zehar ausartzen ez direnekin".



**ESTHER IÑURRIETA**  
BEZEROA

"Dendari batek belarriprest txapa zaroan, eta harrezkero euskaraz egiten dugu".



**MIKEL HERNANDEZ**  
GAZTEA

"Lagun batekin erdaraz egiteko ohitura neukan. Euskaralditik euskaraz egiten dugu".



**XABI PAYROS AGIRRE**  
IRAKASLEA

"Euskaraldiaren ondorioz, orain nere arrebarekin hika hitz egiten dut".



**GARAZI AIZPURUA**  
GAZTEA

"Ohitura hartu dut dendetan eta tabernetan euskaraz eskatzeko".



**ANDER SANTAMARIA**  
UDAL-LANGILEA

"Euskaraldian, zapatu gau baten, bertsoetan egin nuen Belarriprest batekin".

# Kanpaiak isilik daude

Parrokiko taldeak gaueko kanpai hotsengatik kegak jaso ditu eta erabaki du kanpai hotsak isiltzea "behintzat erlojua konpondu arte".

Astebete da elizako kanpaien hotsik ez dela entzuten. Parrokiako taldean galdetuta azaldu dute zein den zergatia: "Herritar batzuen kegak jaso ditugu esanaz gauetan kanpaien hotsak loa galarazten diela eta horregatik parrokiako taldeak erabaki du kanpaiak isiltzea, behintzat erlojua konpontzen dugun artean". Erlojua duela hilabete batzuk izorratu zen, orratzak jausi zitzaizkionean, eta asmoa Abuztuan konpontzeko asmoa dute.



Elizako kanpandorra.

## Pertsona bat kalean lo

Badira egun batzuk herrian pertsona batek kalean lo egiten duela eta egoera horrek kezka eta ardura sortu ditu hainbat herritarren artean. Mutilak berak Pil-pileani adierazi dionez, hogeita hamalau urte ditu eta jatorriz senegaldarra da.

Duela gutxira arte Debabarreneko larrialdi kasuetarako etxebizitza batean egon da herrian, baina handik kanporatu egin dute "ez dituelako baldintzak bete". Udaleko ongizate sailean galdetuta, jakinarazi dute gaia "konplexua" dela eta datozen egunetan emango dutela publikoki eman dezaketen informazioa.

*Jakinaraz plazaerria, bertatik bertara*

**Batzoki**

eguneko menua  
antzerkizuztasun  
kanta eta inoizok

oparirik gabeko eta  
honduragabeko  
entzuzko berriak

gitarra eta  
lupak antzerki  
buzkariak

Erroretak: 943 75 20 55

**JUAN MARI**  
ARRAINDEGIA

ARRAINDEGIA PLAZA - 943 75 34 40

Arain freskoa  
Etxera eramateko zerbitzua  
Eskarguz hartzen ditugu

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure genetik hortsu klinika,  
puntu puntako teknologietan lan  
egiten dugu. Cad-Cam sistema  
bertzako erabilera dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe@igmail.com

Orduetgia:  
Astebeneratik ostiralera  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**Etxabe**  
Harategia

- Etxera eramaten da
- Eskarguz hartzen dira
- Sorakuzko basenletako  
produktuak
- Etxeko tripaki eta txisternak

Etxaburueta 5  
Telefonoa: 943 75 23 79

**Txoko**

Eguneko menua,  
plater konbinatuak,  
hamburgerak,  
ogitortxoak,  
narriskak,  
pizirik,  
gizakiak...

Eskarguz egiten dira

Tel. 943 75 17 08

**ARRANO**  
taberna

Etxera eta gozatu  
etxeko pintxoak

Etxaburueta 6

Bidalgun euskaltzaletasunean



aras



laibi  
ELECTRICIDAD

# Errugbia ikusgarri

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI

---

Errugbian herrian bertan jardun, kirol horri buruz ikasi, ikusi, praktikatu, herritarrei erakutsi eta herrikideekin partekatu. Horixe da Soralezuko Rugby Taldearen helburua eta bide horretan laguntzeko antolatu zuen III. Errugbi Eguna. Lan handia hartu zuten berau antolatzen, baina egunak emandakoarekin "oso oso gustura" geratu ziren, "ikaragarria" izan zela nabarmendu zuten.

Halaber, gonbidapena ere egin zuten datorren urtean errugbia praktikatzeko. Zentzu horretan, gogora ekarri dute eguaztenero entrenatzen dutela 18:30etik 19:30era Ezoziko Futbol Zelaian, atek zabal-zabalik dituztela eta doan eskaintzen dutela errugbia praktikatzeko aukera.





# Txangoan eta jolasean

IKASTURTEA AGURTZEKO IRTEERAK ETA JOLASAK EGIN DITUZTE PLAENTXI ESKOLAKOEK



HH2koak ur-jolasak egiten.



HH2koak ur-jolasak egiten.



HH3koak Deban.



HH4ko ikasleak Ezozin izozkia jaten.



HH5eko ikasleak tren museon.





Eskolako ikasleak ikasturte amaierako ospakizunean, martitzenean.



LH1eko ikasleak Basondon.



LH 2ko ikasleak Txikiparkean.



LH4 eta LH5 jolasean.



LH6ko ikasleak Osintxun.

## GUTUNAK

### Presak eraisteari buruzko eztabaida

ANTTON ALBERDI

NATURAZALEA

Maiatzaren 25ean Merlin proiektuari buruzko informazio eta partaidetza jardunaldian parte hartu genuen Aldundiko teknikariek eta EHUko hainbat aditurekin batera.

Partaidetza-dinamikaren ondoren, ikuspuntu desberdinak azaleratu ziren. Tribuen kontseilu baten antza hartzen hasi zen orduan bilera, non buruzagi batzuek, emozionalki zaurituak, haurtzaroaren zati bat kentzera datozen atzeritarren mehatxupean, gogor argudiatzen zuten presak eraistearen aurka, "non egingo dugu presarik gabe igeri?" (duela 50 urtetik bainatu ezin den ibai batean), "arrainek ez

dute inolako arazorik oztopoak gainditzeko" (bai, badute eta behar bezala aztertua dago), "Ibaian arrainak izan direla bizitza osoan" (ibaira milaka m3 azido isuri izan direnean), "presak 500 urte dituela" (gizakiak gutxienez 20.000 urtez Deba ibaiaren ibarretan bizi izan direnean), "ibaian ez dela urik geratuko" (ibaia ur-kopuru bera darama, presekin edo presarik gabe), etab. Eta beste argudio nagusia, "non eraikiko ditugu zentral hidraulikoak hainbeste behar dugun energia berriztagarria lortzeko presak kenduz gero?". Nire ustez argudio honek ez du balio. Etorkizunean zeregin horretarako azpiegiturak eraiki behar badira, presa zaharrak eraitsi egin beharko dira eta egitura berriak altxatu, leku berberetan edo beste batzuetan.

Guzti honetan, ironikoena zera da, ibaia zeharo suntsitu genuela industria-isurketen eta saneamendu faltaren ondorioz, baina orduan inork ez zuela ezer esan. Orain berriz, asaldatu egiten gara ibai natural batekin zerikusirik ez duten egitura artifizialak kenduko dituztelako.

Ez al da logikoa eta praktikoa, planteamendu maximalistetatik ihes egin, garrantzia gutxien duten 4 presetatik 2 kentzea eta beste bietan moldaketak egitea sortzen duten ingurumen-eragina gutxitzeko?

Bukatzeko, nabarmendu nahiko nuke Euskal Herriko Unibertsitateko bi irakasle hauek egiten ari diren lana, 30 urte daramatzatelako Euskal Herriko ur gezako ekosistemak aztertzen. Errespetua eta esker ona zor diegu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA



**dkt**

Debarreneko  
Komunikazio  
Taldea

**Bizi Debarrena**

# Turismoa dibertsifikazio-iturri



## AITZIBER CORTAZAR ALTUNA

DEBEGESAKO TURISMO ETA GARAPEN JASANGARRIKO SAILAREN ARDURADUNA

**A**ldi oro zalantzan jartzen da turismoak EA Eren ekonomiarari eta euskal gizarteari egiten dion ekarpena, eta, ondorioz, ez zaio ematen ekonomia-jarduera eta enplegua dinamizatzeko faktore gisa dagokion tokia, ezta tratamendua ere. Hala ere, Debabarrenak turismo-eredu jasangarrien aldeko apustua aldarrikatzen du eta horretan dihardu.

2010az geroztik, eskualdeko produktu turistiko nagusia Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen duten Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea da. Biztanle orori zuzendutako 15 irteerek osatzen duten bisita gidatuen programa dauka eta urtean 1.300 bisita baino gehiago eskaintzen ditu. Bisitarietako asko bertakoak dira. Hori horrela, ez bairik gabe, eskualdeko produktu turistikoen garapen handiena kostaldean dugu, horren adierazleak dira, besteak beste, Deba eta Mutrikuko hondartzak, begiratokiak, Donejakue bidea, Mutrikuko Hirigune Historikoa, Santa Maria Eliza, Arrietakua Jauregia, geo-ibilbideak, etab. Produktu guztiak garatzeko eredua jasangarria lantzen eta bideratzen da, hain zuzen, masifikazioa ekiditeko.

Era berean, turismo sektorea ekonomiaren dibertsifikazio iturri dugu eskualdean, enpresa txikiak osatzen dute, gehienak familia-negozioak: bizitza-apustua. Sektoreak neguan enpresei ematen die zerbitzu, udan, berriz, bisitariei. Hori horrela, ostatu-eskaintzari erreparatzen badiogu, Deba eta Mutrikuko

udalerrietan landetxeak eta nekazalturismoak ditugu nagusi, zalantzarik gabe landa-inguruneari eusteko funtsezko elementuak bilakatu dira. Eta kanpinen eskualdeko ostatu-eskaintza handiena osatzen dute. Eibar, Ermua eta Elgoibarrek eskualdeko ohe eskaintza gehiena dute eta udan (ekaina-abuztua bitartean) % 95 baino gehiagoko okupazio-tasak dituzte. Horren erakusle dira azken urteotan Eibarren sortutako alojamendu berriak.

Testuinguru horretan, erronka nagusietako bat eskualde barruko udalerrietan eskaintza turistiko erakargarria eta jasangarria garatzea da. Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna, horren adibide da azken urteotan Dolmenen ibilbidearen inguruan Bergara, Soralue eta Elgoibarko udalek egindako lanketa. Beraz, ditugun elementuetatik abiatuta, ondare industrialari eta eskualdearen nortasunari aukera

turistikoa eman diezaiogun.

Eskualdeko turismo sektorea negozio txikiz osatua dago, landa-eremuaren biziraupenari mesede egiten dio eta ondarea mantendu eta balioan ipintzeko baliabide ezin hobea da. Industria den eskualde honetan enpresei zerbitzu ematen die eta bertakook gozatu ditzakegun eskaintza baliatzen du. Beraz, turismo eredua jasangarrienaren aldeko apustua egin dezagun eskualdean.

**"Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna"**

**Argitaratzailea:** Debabarreneko Komunikazio Taldea

**Erredakzioa:** Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Iزارo Aulestiarte

**Publizitatea:** Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Nagore Dorronsoro

**Diseinua eta maketazioa:** Zalao Arnaiz

**Tirada:** 18710 ale



# Museoak



## Armagintzaren Museoa

Bista-Eder kalea, 10. EIBAR  
943 708 446  
museoa@eibar.eus  
Asteazkenetik larunbatera: 16:00-20:00  
Igandeetan: 10:00-13:00




## Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa

Arrate Balle auzoa. EIBAR  
944 029 099  
www.ateri.net  
Igandeetan: 11:30-13:30



## Makina Erreminta Museoa

Azkue Bailara, 1. ELGOIBAR  
943 708 456  
museoa@museoa.eus  
Astegunetan: 8:30-13:00/14:30-17:30



## Mufomi Museoa

Artetxe kalea z/g. (Artetxeko eskola zaharrak). ELGOIBAR  
608 416 683  
info@mufomi.org  
Asteburuetan-jaiegunetan: 11:00-14:00



## Hezur Museoa

Artetxe. ELGOIBAR  
650 352 566  
josejumarquez@gmail.com  
Asteburuetan, aurrez ordua hartuta bakarrik.



## Nautilus Interpretazio Museoa

Jose Antonio Ezeiz kalea, 3. MUTRIKU  
943 603 259 / 943 603 378  
nautilus@mutriku.eus



Debako Surf eskola

**YAKO**

## UDAKO IKASTAROAK

**> SURF ASTEKOAK**  
Astelehenetik ostiralera  
**Iraupena:** 7 ordu eta erdi  
**Ordutegiak:**  
A) 10:00 - 11:30    B) 12:00 - 13:30  
D) 16:00 - 17:30    E) 18:00 - 19:30

**BI EGUNETAKO KURTSOA**  
**Iraupena:** 3 ordu (ordu eta erdi eguneroko)  
Aukeratu zuk asteko egunak

**ORDU PARTIKULARRAK**  
Astelehenetik igandera

**> MULTISURF**  
Ekainaren 20tik irailaren 9ra.  
Astelehenetik ostiralera  
**Iraupena:** 15 ordu  
**Ordutegiak:** 10:00 - 13:00  
**Adina:** 6 urtetik 13ra

**> SURF - SKATE**  
Astelehenetik igandera  
Eskolak orduka  
Hastapena eta hobekuntza









**PLAZA MUGATUAK**  
688 743 863 | 943 029 600  
www.yakosurf.com  
yako@yakosurf.com

**> SUP**  
Astelehenetik igandera  
Hastapen eskolak orduka  
Hobekuntza eskolak

## DEBA-ITZIAR - Mendatagaina



Mendatagaina du inguruotako tokirik kuttunena Josune Arakistain (Lastur, 1996) Huntza taldeko abeslari eta trikitilariak. "Euskal Herria ederra dela badakigu, baina Top zerrenda bat egingo bagenu, dudarik gabe leku hau lehenengo postuetan egongo litzateke", adierazi du. Gustuko ditu bertako "fauna, flora, historia, paisaia eta lasaitasuna (udaran ez horrenbeste)...", eta hitz gutxitan laburbildu du preziatua duen lekua: "Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, gozatzeko eta errespetatzeko labarra".

Zenbait urtez trikitilari txapelketetan ibili ondoren, Huntza taldearekin dabil plazaz plaza lasturtarra, 2014az geroztik. Urteotan, lau disko kaleratu dituzte –*Ezin ezer espero* (2021, Mauka Musikagintza) da horietako azkena–, bidean ehunka oholtza eta leku ezagutuz. Baina, musika esparruan ere, Mendatagain aldeak berezia izaten jarraitzen du Arakistaintzat. "Nire ibilbideko bideoklip garrantzitsuena, *Aldapan gora* abestiarena, bertan grabatu genuen eta oroitzapen zoragarriak dakarzkit".

Aitzuri hormatzar handiaren gainean kokatua, Mendatagainak euskal kostalde osora hedatzen den ikusmira zabala eskaintzen du. Hainbat ibilbide egin daitezke inguruetan; *Itsaslabarraren Sustraiak* (PR-Gi 5001), adibidez. Mendatagaineko behatokitik, Sakonetako senadia, Andutzeko faila (flysch kareduna eta flysch beltzaren artekoa), marearteko zabalgunea

### JOSUNE ARAKISTAIN - Musikaria



**"Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, errespetatzeko eta gozatzeko labarra"**

edo Mendatako ur-jauzi txikia ikus daitezke. Halaber, paisaiaren parte dira hariztiak, artadiak, txilardi-otadiak...

"Gauzetara ohitzen garenean aspertzen garela dio esamoldeak, baina ni ez naiz sekula ohituko leku honetara".

- **Izena:** "Itsaslabarraren sustraiak"
- **Distantzia:** 5,5 km
- **Iraupena:** 01:55 h
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Hasiera:** Itxaspe kanpina
- **Amaiera:** Errota Berri jatetxea

## EIBAR - Ixuatik Arratera



**Y**lenia Baglietto (Eibar, 1986) bide arrakastatsua egiten ari da antzerkiaren munduan. Aktore eibartarra gelditu barik dabil eta azkenaldian *Erresuma* antzezlanean ikusi ahal izan dugu, besteak beste. Pasioz eta maitasunez jarduten du, baina oso lanbide zorrotza da aktorearena eta Yleniak eguneroko joan-etorrietatik ihes egiteko ibilbidea proposatu digu.

Eibartar orok ezagutzen du Ixua eta Arrate arteko bidea, baina ezaguna izanagatik ez du bere xarma galtzen. Gainera, bide horrek esanahi berezia du Yleniarentzat. "Umetan aitarekin egiten nuen ibilbidea da", gogoratzen du maitasunez. "Goizetik etxetik irten eta oinez joaten ginen Ixuara. Frito batzuk jaten genituen han, eta gero, Arratera joaten ginen oinez", gehitu du.

Bide horretan Kalamuako lautadatik pasatzen da bidea eta norbaiti Arratera doan bidea oso erraza iruditzen bazaio, Kalamua, Aizketa, Akondia eta Garagoitiko tontorretara igotzeko aukera ere badu bidetik asko aldendu gabe. Bide asko dago, aukera ezberdinak.

Behin Arratera iritsita, han zerbait bazkaltzeko ohitura zutela dio Yleniak. Orain, jatetxe bakarra dago bertan, Tiro Pitxoia, hainbeste urtetan Arrateko ikurra izan den Kantabria jatetxeak itxi berri baitu atea.

### YLENIA BAGLIETTO - Aktorea



**"Goizean goiz aitarekin etxetik irten, Ixuara joan eta fritoak jaten genituen han"**

XVII. mendean eraikitako elizaz gain, frontoia, sua egiteko parrillak, mahaiak eta zelai handi bat aurkitu ditzakegu Arraten. Yleniak, ostera, beste toki bat nabarmentzen du: gurutzeta. "Bueltak ematen genizkion ligatu ahal izateko", diosku barrez.

- **Distantzia:** 10 km (Ixua-Arrate-Ixua)
- **Zailtasuna:** Erraza / ertaina
- **Interes puntuak:** Usartza, Kalamua, Akondia, Aizketa eta Garagoiti gainak

## ELGOIBAR - San Pedroko parkea



**R**eyes Prados (Sevilla, 1982) Sevillan jaioa da. Han Regin zituen Kazetaritza ikasketak, eta lanak ekarri zuen Euskal Herrira, 23 urte zituela. Bilbo ingurura iritsi zen lehenengo, eta hasierako urteak Sevillatik Euskal Herrira bueltaka eman zituen. Orain dela bost urtetik Elgoibarren bizi da, eta Elgoibar, eta oro har, Euskal Herria izugarri gustatzen zaizkiola dio. Gustuko txoko asko ditu, baina Elgoibarren bat aukeratzeko eskatuta Idotorbe-San Pedroko gunea aipatu du: "Elgoibarren dago, baina aldi berean, ez dago Elgoibarren. Herritik gertu dagoen oasis moduko bat da". Herritik hurbil dago San Pedro, eta oinez zein autoz joateko aukera ematen du. Pradosek aitortu du bera ez dela oso mendizalea eta ia beti autoz joaten dela, baina handik abiatuta, mendi ibilaldiak egiteko ohitura daukala. Kalamuara, Morura, Morkaikora edota Arratera oinez joateko abiapuntua da San Pedro herritar askorentzat.

Pradosen ustez, San Pedrok dena dauka, umeen zein helduen gozamenerako. Frontoia, parkea, barbakoa egiteko parrillak, eta batez ere, bistak: "San Pedrotik dagoen ikuspegia zoragarria da, mendi pila bat ikusten dira eta orduak eman ditzaket urrutira begira". Jatetxea ere badago, hamaiketako egin edo bertan bazkaltzeko aukera ematen duena. "Askotan egoten gara gu jatetxeko

### REYES PRADOS - Kazetaria



**"Herritik gertu dagoen oasis bat da San Pedro"**

terrazan zerbait hartzen, eguraldi onarekin. Leku aproposa da, eta neguan taberna barruan goxogo egoten da".

Bakarrik zein familian edota lagun artean gozatzeko aukera ematen du San Pedrok, eta elgoibartar askok aukeratzen dute asteburuetan.

- **Distantzia:** Elgoibartik 4 km-ra dago.
- **Zailtasuna:** Erraza, autoz edo oinez joan daiteke.
- **Aipatzekoak:** Jatetxea dago, eta baita mahaiak norberak etxetik eramandakoa jateko.



## ERMUA - **Untzamako gaina**



Igor Astarloak (Ermua, 1976) 2009an utzi zuen txirrindularitza profesionala, lortutako garaipenei esker kirol horretan erreferente bihurtuta. Garaipen horien artean Munduko Errepideko Txirrindularitza Txapelketa nabarmentzen da, 2003an eskuratu zuena Hamiltonen (Kanada). Garai hartan Untzama ingurura joaten zen Igor sarritan, eta gaur ere, bere lekurik kuttunen artean dago mendi hura. Ermuko Santa Ana auzotik abiatu behar da bertara joateko, Abeletxe baserria igaro, eta maldan gora jarraitu lautada batera heldu arte, ezkerretarako bihurgunea hartu baino lehen. Handik, zuzen joanda, Untzamako mugarrira heltzen da, Ermua, Eibar eta Zaldibarrek bat egiten duten tokia adierazten duen trianguliformako harrira, alegia.

"Lasterketa aurreko egunetan, goizetan entrenatu, eta arratsaldetan Untzamara joaten nintzen. Denbora asko igarotzen nuen bertan dagoen harrian eserita, lasai, pentsatzen, meditatzen-edo". Izan ere, ermuarraren iritziz, Ermua inguruko txokorik politena da hau, Sallabente gainetik Ermuko hainbat auzo ikusten direlako, Oiz mendia, Egoarbitza... "Paseotxo bat da, gogorra, hasieratik maldan gora joan behar delako, baina ederra!". Paisaia ikusi eta gero kirola egiten jarraitu nahi dutenak Elorretaraino joan daitezke: "Orain dela gutxira arte jarraitu dut bertara joaten. Txikitako oroitzapen politak dakarzkiz,

### **IGOR ASTARLOA** - Txirrindulari ohia



**"Lasterketa aurreko egunetan, denbora asko igarotzen nuen bertan, lasai, pentsatzen"**

bertan zegoen tabernaraino joaten bainintzen askotan".

Azken bi urteetan Mutrikun bizi den arren, Astarloak ondo gogoratzen ditu inguruko ibilbideak, oinez, korrika, zein bizikleta gainean egitekoak. Negurako, esaterako, Errekaldetik gora doan bidea egitea gomendatzen du, Berano auzoa, Trabaku, Osma eta Areitio zeharkatuta Ermura bueltatzen dena.

- **Distantzia:** 700 metro.
- **Zailtasuna:** Erraza.
- **Interes puntuak:** Ermuko auzoak, Oiz eta Egoarbitza mendien begiratokia.

# 'Elosua-Plazentzia' liburua aurkeztu dute Karakaten

**E**kainaren 19an, Soralezeko, Elgoibarko eta Bergarako alkateek, Aldundiko kultura diputatuak eta Aranzadiko ordezkariak *Elosua-Plazentzia* izeneko liburua aurkeztu zuten Karakaten, azken urteotako indusketetan lagundu duten hainbat boluntariorekin eta ekitaldira hurreratu ziren dozenaka herritarrekin batera.

*Elosua-Plazentzia* liburua argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua. Hasierako ataletan, Muskiritzu mendilerroaren ezaugarri geologiko

eta kulturalen berri ematen du, eta, ondoren, XX. eta XXI. mendeetan inguru horretan egin diren azterketen eta aurkitu diren monumentu (21) eta pieza nagusien inbentario zehatza aurkezten du, azken urteotan ezagutu diren datu berrien eta egin diren zaharberritze-lanen gaineko informazioarekin batera. Horrez gain, argitalpenak estazio megalitiko osoa irudikatzen duen oinarritzko mapa bat ere badakar.

## Mendeurrenaren harira

Hain justu, aurten bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek

eta Egurennek Muskiritzuko mendilerroan aurkitutako lehen aztarna megalitikoaren gaineko liburuxka argitaratu zutenetik eta Aranzadik data seinlatu hori baliatu nahi izan du *Elosua-Plazentzia* liburua argitaratzeko.

Jesus Tapia Aranzadiko kideak aitzindari izan ziren hiru arkeologo ezagunen lana goretsi zuen

**Argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua**



## DOLMENEN IBILBIDEA



MENDIA ETA ITSASOA  
TALAI A BERETIK

Zatoz historiaurrean  
zehar ibiltzera!

### BISITA GIDATUEN EGUTEGIA

Uztailak 12, asteartea (Gaztelania)  
Abuztuak 15, astelehena (Gaztelania)  
Irailak 25, igandea (Euskara)  
Urriak 2, igandea (Gaztelania)  
Urriak 9, igandea (Euskara)

Bisitetan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez 657 794 677 telefonoan edo ondorengo helbidean izena ematea:  
[www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak](http://www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak)

Bisita guztiak 10:00etan hasiko dira Karakateko aparkalekutik.





Elgoibarko, Soralezeko eta Bergarako alkateak eta Aranzadiko teknikaria (ezkerretik hirugarrena) liburua eskutan dutela.

**Aurten bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek eta Egurennek lehen liburuxka argitaratu zutenetik**

gauza gutxi aurkituko genituela, baina harrিতa eta oso pozik nago jasotzen ari garen emaitzekin. Oraindik badago partida. Ari gara beste teknologia eta ikuspegi batzuekin informazioa biltzen eta ondorengoek ere gure lana errebisatu eta osatuko dute".

**Liburua salgai**

Amaieran jakinarazi zutenez, liburua salgai izango da Dolmenen Ibilbidea proiektua bultzatzen diharduten hiru udalerrietan: Soralezeko eta Elgoibarren udaletxeetako harreran eta Bergaran Laboratoriumean. 5 euroan salduko dute.

aurkezpenean: "Garai hartan ezer gutxi genekien fenomeno honen inguruan. Esplorazio batzuekin zeuden Aralar eta Aizkorri inguruetan eta Muskiritzukoa izan zen Euskal Herrian ezagutu den adibiderik zaharrenetako bat. Orduan ere esaten zuten oso eremu interesgarria zela, ez bakarrik elementuen kopuruagatik baizik eta sakabanatuta eta multzoka

antolatuta dauden moduarengatik ere bai. Garai hartan egin zituzten lanak oso zorrotzak izan ziren ordurako".

Azken urteotako lanari erreparatu, berriz, arkeologoa gustura agertu da lortzen diharduten emaitzekin: "Orain, ia ehun urte geroago, berriz hasi garenean industen, ematen zuten

Arrate Bailara, 34  
(AZITAIN gaina)

**RRIARTE**

Hotel Asador \*\*\*

943 702 967 [www.hotelarriarte.com](http://www.hotelarriarte.com)

ERRESERBAK: [reservas@hotelarriarte.com](mailto:reservas@hotelarriarte.com)

Enpresentzako egongelak  
alokairua  
Jatetxea  
Menu eta Karta  
Ospakizunak  
Logelak

**ZURE OSTATUA**  
Eibar erdian eta Euskal Herriaren bihotzean

**eibarrooms** AUTO CHECK-IN

[www.eibarrooms.com](http://www.eibarrooms.com)  
Ego Gain, 17 ac

**ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA**

AZKUE AUZOAN, 1  
20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)

T. 943 748 456

[www.museoa.eus](http://www.museoa.eus)  
[museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus)

**Mélida Ostatua**

Debabarreneko betiko ostatua

Bizkiala Etorbidea, 13 · ERMUA

943 17 00 19

[www.melidaostatua.com](http://www.melidaostatua.com)

**DEBA**  
627 325 135

**IPAR**  
SURF & SKATE BSKOLA

Web: [iparsurfskate.com](http://iparsurfskate.com)  
Instagram: @iparsurfskate

**Hotel Arbe**  
Ego bitartean daren amekak

Laranga auzoa 2/g  
Mutriku eta Deba artean  
Tel: 943 604 749  
[www.hotelarbe.com](http://www.hotelarbe.com)

## MALLABIA - Trabakutik Trabakura



Mallabikoa den arren, duela urte gutxi aurkitu zuen Karmele Gisasola (Mallabia, 1994) herri-kirolariak Trabakun hasi eta bukatzen den mendi buelta hau, eta ordutik, hainbatetan egin du. Trabakun Ermurako bidea hartu behar da, eta Donai baserriaren parean dagoen porlanezko aldapan gora egin behar da. "Atzealdean Oiz mendia izango dugu, eta eskumatara Mallabiko auzo ezberdinak eta Anboto", azaldu du. Aldapa hura bukatutakoan, ezkerretara dagoen baso pista zabalenetik jo behar da, Asuntzako bidegurutzeraino. Bertatik Markina-Xemeinera, Urkora edo Mallabiko Berano Txiki auzora jaitsi daiteke, eta Gisasolak azken bide hau hartu ohi du, Berano Nagusirako norabidean. Auzo horretako ermitara heldu baino lehen, Egia baserriaren atzeko pista hartu eta lehengo bidegurutzera helduko gara. Eta hortik Trabakura berriro ere.

Hiru orduko bide hau oinez, bizikletaz edo motoz egin daiteke, eta Karmeleren esanetan, mendiaz, basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du. "Konfinamendura arte ez nekien pista hauek zeudenik, ezta haien artean lotura egiteko aukera zegoenik ere, eta ziur nago beste herritar askok ere ez dutela honen berri izango".

Karmele Gisasola Euskal Herriko txapelduna da harri-jasotzen, ingudean eta banakako pentatloian, eta sasoiari daudenei, bide horretatik Mendibil eta Urko mendietara igotzeko gonbita egin die. Inguru

### KARMELE GISASOLA - Herri kirolaria



**"Basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du ibilbide honek"**

horretan dago Arteta ermita ere: "Hamaika istorio entzun ditugu ermita honen inguruan, gure arbasoek festa egiten zutelako bertan. Hala ere, gaur egun horma batzuk baino ez dira geratzen".

- **Iraupena:** Hiru ordu inguru.
- **Zailtasuna:** Ertaina.
- **Nabarmenezkoa:** Porlanezko bideak mendi ibilbideekin tartekatzen dira, eta kotxeen zarata mendiaren isiltasunarekin. Horrez gain, Oiz eta Anboto mendiak bertatik bertara ikus daitezke.

## MENDARO - Lizarpe gaina



**M**akina bat aldiz zapal dutako gaina duen arren, beti iruditu zaio berezia Lizarpe ingurua Maite Maiora (Mendaro, 1980) mendiko korrikalariari. Umetako eta nerabezaroko oroitzapen asko hangotxeak ditu, eta gaur ere, sarri egiten du harako bidea, lasaitasun bila. Eguneroko entrenamenduetan maiz igarotzen da Lizarpetik, eta paradoxikoa dirudien arren, hauspoa berotuen daramanean ere hantxe hartu du ohi du arnasa ondoen. "Hango larrea, behorren zintzarriak, amen atzetik jolasean dabiltzan moxalen intziriak, bazka-bazka ari diren ardién patxada... Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak (626 metro)".

Ura eta harria da Mendaro, eta horrek egiten ditu bertako parajeak horren berezi. Mendaro Geoparkean sartuta egon ez arren, Geoparkeko kostaldearen ederra begi kolpe batez ikusteko talaia ezin hobea da Gaintxipia mendia. Alde batera, Deba-Zumaia arteko kostaldea, Lastur eta Itziarko mendi-gainak; beste aldera inguruko mendi-tontor mitikoak: Oiz, Anboto, Erlo, Udalaiz... "Zer ez da ikusten han goitik! Bizi garen lekuan bizitzeagatik, zein zorionekoak garen konturatzeko ere balio du hara igotzeak", dio. Igoera errazeko mendia da Gaintxipia. Mendaroko plazatik 4 kilometro pasatxoko bidea dago errepedez Lizarperaino, eta

### MAITE MAIORA - Korrikalaria



**"Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak"**

handik gora, 330 bat metro. Baina mendia aisialdirako duenak eta kilometroak pilatzeko afizioa duenak nekez aukeratu ohi du bide zuzena. Lizarpera zortzi bihurguneen bidetik igotzea gustukoagoa du Maiorak. "Bide zoragarria da, Kilimon bailaran barneratzeko".

- **Distantzia Mendaroko plazatik:** 4 kilometro pasa dago oinez Lizarpera, bide zuzenetik. Handik Gaintxipia tontorrera (626 metro) 300 bat metro.
- **Zailtasuna:** Erraza

## MUTRIKU - Burumendi



**A**ndoni Basterretxea (Mutriku, 1964) Delirium Tremens taldeko abeslari eta gitarra-jolea da. 1985. urtean sortu zuen taldea Patxi Irisarri eta J. J. Yurritarekin hirukoa osatuz, eta gerora, Iñigo Muguruza batu zitzaien. Handik aurrera, laukote gisa funtzionatu zuten. 1991n desegin zuten taldea, baina 2019an berriz elkartu ziren, Iñigo Muguruzaren omenezko kontzertu batean parte hartzeko. "Eta, berotu egin ginen", esan du Basterretxeak. "Denok musika jotzen jarraitzeko gogoz geunden, eta kanta berri batzuk sortzea erabaki genuen, disko berria osatzeko". Horrela, 2021ean, taldea desegin eta 30 urtera, eszenatokietara itzuli ziren.

Mutrikun dauka sorlekua taldeak, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko erpinean, Bizkaiarekiko mugan. Iparraldean Bizkaiko golkoa; hegoaldean Mendaro; ekialdean Deba; eta mendebaldean Ondarroa, Berriatua eta Markina (Bizkaia) ditu mugakide. Mutrikuk arrantza bere-berea izan du, eta udalerraren armarrian ere arpoiz jotako balea ageri da. Bereziak ditu kaleak, eta bereziak inguruak ere. Hondartza du, eta mendiz inguratuta dago. Basterretxeak Burumendi ingurua du gustukoena, ume-umetatik. Hirugarren hondartza gainean dago, flyschean barneratuta. "Umetatik gustatzen zait, oso leku berezia da niretzat. Neguan ere

### ANDONI BASTERRETXEA - Musikaria



**"Pretilean eseri eta Burumenditik itsasoari begira egotea gustatzen zait"**

txakurra hartuta, sarritan joan nintzen". Pinuak zeuden lehen, baina orain garbituta dago dena, eta bidea ere berrituta dago: "Pretilean eseri eta itsasora begira egotea gustatzen zait, lasai. Oso leku polita da".

- **Distantzia:** Herrian bertan dago, portutik gertu.
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Interes puntuak:** Portua, hondartzak, taberna dago

## SORALUZE - Lau Baselizen Ibilbidea



**P**edro Lete (Soraluze, 1953) ibiltari askoa da. Ezustekorik ez bada egunero egiten du ibilbide bat, normalean bidegorritik, baina giro ona badago gora, mendira joaten da. Ibiliaz ezagutu ditu ibilbideak. Horietako bat da Lau Baselizen Ibilbidea.

Ibilaldi "oso polita" delako aukeratu du. "Ia lau ordukoa da, baina barruan dago sartuta argazkiak ateratzea gehi paisajeak ikustea", dio Letek.

Ezozki-bidea da abiapuntua, handik gora hartu eta Ezozki auzora jo behar baita. "Ezozikoa da lehen ermita; hura ikusi eta gero gora segi eta bertan dago San Rokeko ermita. Ondoren, hartu behar da hormigoizko bidea, errepide handiko bidegurutzera iritsi arte. Hor, errepidetik beherantz hartu eta San Andres auzora iritsiko zara; han dago hirugarren ermita. Gero, San Andrestik Txurrukarako bidea hartu behar da, bidegurutzera ailegatu arte; han, berriz, beherantz, Osuma baserrirantz, Txurrukara ailegatu arte. Hantxe dago laugarren ermita: San Inazio. Eta ibilaldia borobiltzeko, Txurruka jatetxean hamarretako edo bazkari ederra egin!".

Pedro Letek esan du familian egiteko moduko ibilaldia dela: "Aldapa dago, baina dena da asfalto, ez dago harri artean edo sasi artean ibili beharrik, garbi-garbi dago. Nik urtean bizpahiru bider egiten dut. Urtaro guztietan egin daiteke eta bidean denetik ikus daiteke: katamixarrak, azeriak, kukuak... Landare

### **PEDRO LETE** - Ibiltaria



**"Ermitak, auzoak, animaliak, landareak eta paisajeak... denetik ikus daiteke"**

aldetik ere denetik dago, farmazia bat da: berbenak, milamores edo belar bedeinkatua, pasmo belarra, kukufrakak, teresitak, zaingorria, zentaurea, pasiflora... Etorri eta ikusi".

- **Distantzia:** 15,29 km
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Aipatzekoak:** Ezozki auzoa eta Ezoziko Andre Mariaren ermita, San Roke ermita, San Andres auzoa eta San Andres ermita eta Txurruka auzoa eta San Inazio ermita.

# AGENDA

## DEBA

Ekainak 25	22:00	"Olatu arteko txalupa arraroa"	Ikuskizun musikatua eta poesia	Plaza Zaharrean
Uztailak 1	22:00	"TENE"	Bertso saioa	Plaza Zaharrean
Uztailak 2	19:30	Debako Musika Banda	Kalejira	Herriko kaleetan zehar
Uztailak 6-10	-----	Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 8	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uztailak 9	22:00	Aitzuri Abesbatza	Kontzertua	Elizako klaustroan
Uztailak 15	22:00	"GenEroa"	Dantza ikuskizuna	Plaza Zaharrean
Uztailak 22	22:00	Habi	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Uztailak 29	22:00	"Album"	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 30	23:00	Musika Banda	Dantzaldia	Foruen plazan
Abuztuak 6-10	-----	Itziarko Kopraixak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 13	-----	Deba-Reus topaketa	Herrialde katalanetako ekimen kulturalak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18	-----	San Roke jaiak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar

## EIBAR

Ekainak 28-30	22:30	Ikus-entzunezkoen astea	-----	San Andres elizako klaustroan
Uztailak 3	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 8	22:00	Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 8-10	-----	Amaña auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10	-----	Lambretta Eibar XVII Topaketa	-----	-----
Uztailak 10	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	Amaña auzoan
Uztailak 15	23:00	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 15-17	-----	San Kristobal auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 4-11-18-25	22:00	Zinema kalean	Zinema	Untzagan
Abuztuak 6	-----	San Salvador jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Azitain auzoan

## ELGOIBAR

Ekainak 24	19:00	Nahaste Borraste kirol proba	-----	Kalegoen plazan
Ekainak 25	09:00	Nekazari eta ganadu feria	-----	Kalebarren plazan
Ekainak 28,29,1,2	-----	San Pedroko jaiak	Ekimen ezberdinak	Idotorben
Uztailak 8-10	-----	Urazandiko jaiak	Ekimen ezberdinak	Urazandi auzoan
Uztailak 8	22:30	'Elkano, lehen mundu bira'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 9	22:30	'Padre no hay más que uno'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 15	22:30	'Wonder woman 1984'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 16	22:30	'Corre como una chica'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 22	18:00	Folklore jaialdia	Dantzaldia	Maalako parkean
Uztailak 23	22:30	'La pequeña Suiza'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 24	10:30	Pilota txapelketa	Kirola	Sigma auzoan
Uztailak 24	-----	Sargoateko erromeria	Erromeria	Sargoaten
Uztailak 29	22:30	'Greenland: el último refugio'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 30	22:30	'Agur Etxebeste'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Abuztuak 3	-----	Santumotz Eguna	-----	Santumotz lautadan
Abuztuak 6	-----	Sallobenteko jaiak	Ekintzak egunean zehar	Sallobenten
Abuztuak 10	-----	San Lorentzo Eguna	Meza	Sallobenten
Abuztuak 16	-----	San Roke Eguna	-----	Azkue auzoan
Abuztuak 23-28	-----	San Bartolome jaiak	Herriko jai nagusiak	Herri osoan zehar
Irailak 2	-----	San Antolin Eguna	Arriaga auzoko festak	Arriaga auzoan



**ERMUA**

Uztailak 2	-----	Afrika-Ermua V. Jardunaldiak	Hainbat ekitaldi	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 7-10	-----	San Lorenzo auzoko jaiak	Hainbat ekitaldi	San Lorenzo auzoan
Uztailak 8-9	-----	Neska gazteen II. Topaketak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 15	17:30	Zirika Zirkus	Ikuskizuna	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	23:30	Skakeitan	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 18	22:30	Rafa Rueda	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 19	22:30	Petti	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 23	22:30	La Oreja de Van Gogh	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 24-27	-----	Ermuko Santixau jaiak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Abuztuak 1	22:00	'Jojo Rabbit'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 2	22:00	'Explota Explota'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 3	22:00	'Space jam. Aro berria'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 8	22:00	'La boda de Rosa'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 10	22:00	'Jungle Cruise'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 17	22:00	'Cuñados'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 22	22:00	'Errementari'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 24	22:00	'A todo tren'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan

**MALLABIA**

Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Herriko txoko ezberdinetan
----------------	-------	------------------	-------------------	----------------------------

**MENDARO**

Uztailak 2	16:00	Jabier Ezenarro Oroitzarrea	Txirrindularitza	-----
Uztailak 8	19:00	Gararock jaialdia	Aurkezpen kontzertua	Santa Kruzkuako parkean, Azpilgoetan
Uztailak 22-26	-----	Santa Ana jaiak	-----	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	-----	-----

**MUTRIKU**

Uztailak 1-3	-----	Elkano Mundubira	-----	-----
Uztailak 2	22:00	Herriko elkarteen kontzertua	-----	Plazan
Uztailak 2	-----	Mutrikuko Bandera	-----	-----
Uztailak 16	-----	Merkatu txikia eta atun errea	-----	-----
Uztailak 16	22:00	Anaiarte abesbatzaren kontzertua	-----	-----
Uztailak 21-25	-----	Malen jaiak	Ekimen ezberdinak	Herrian zehar
Uztailak 30	22:00	Kantu bat gara	-----	-----
Abuztuak 3	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 10	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 17	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 6	22:00	Neomak	-----	-----

**SORALUZE**

Uztailak 9-11	-----	San Andreseko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 22-26	-----	Soraluzeko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	10:00	Dolmenen ibilbidea	Bisita gidatua	Karakaten

# Turismo etikoa Debabarrenean

Euskadiko Kode Etikoaren bueltan jasotako prestakuntza eta konpromiso ibilbidea osatu duten turismo eragileei Kode Etikoaren zigilua eman die Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 530 enpresak eta erakundeak jaso dute aitortza 2020an kode hau sortu zutenetik, eta horien artean Debabarreneko hamazazpi enpresa eta erakunde daude.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa Turismorako Munduko Kode Etikoaren egokitzapena da, gure kulturaren eta nortasunaren berezko ezaugarrietan oinarrituta eta 2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetan oinarrituta.



- Arriola Txiki (Deba-Itziar)
- Begi Bistan
- Belaustegi Baserria (Elgoibar)
- Debabarrena Turismo
- Debako Turismo Bulegoa
- Eibarrooms Auto Check-In (Eibar)
- Endañeta Berri (Deba-Itziar)
- Euskal Kostaldeko Geoparkea
- Hotel Arbe (Mutriku)
- Mélida Ostaturua (Ermua)
- Mutrikuko Turismo Bulegoa
- Txurruka Jatetxea (Soraluze)
- Hotel Kanala (Deba-Itziar)
- Perlakua Saka (Deba-Itziar)
- Txindurri Iturri (Deba-Itziar)
- Zubeltzu Torre (Deba-Itziar)
- Zumardi (Deba)

**BELAUSTEGI**  
— BASERRIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR      943 74 31 02      [WWW.BELAUSTEGI.COM](http://WWW.BELAUSTEGI.COM)

## HAUSNARKETA

**Pertsona bat kalean**

Pertsona batek hainbat egun daroaz kalean bizitzen eta lo egiten. Zer gogoeta sortzen dizu horrek?

**BEGOÑA TXURRUKA**

"Badakit hainbatek janaria eskeini diotela. Nik neuk ez dut ezer egin. Nik ematen dut dirua zenbait ekimenetarako eta pentsatzen dut handik helduko zaiola behar duenari, baina pena ematen dit pertsona bat kalean ikusteak."

**ITZIAR LASKURAIN**

"Uste dut ez dela normala pertsona batek kalean lo egitea. Zaila egiten zait hurreratu eta bere egoeraz arduratzea eta pentsatzen dut entitateren bat arduratuko dela laguntzeaz. Hala ere, nik noizbehinka ematen dut dirua eskura, laguntzeko borondatez".

**STOICA GHEORGHE VANILLA**

"Ni ahal dudan neurrian ahalegintzen naiz laguntzen, janaria edo tabakoa emanaz. Nik badakit zer den kalean lo egitea eta ez da erraza. Laguntzak lortzeko paperak egitea zaila izaten da, baina laguntza galtzea oso erraza".

**IGOR AKARREGI**

"Berba egin dut berarekin. Nire ustez garrantzitsua da hurreratzea eta elkartasuna adieraztea. Lagundu diot janaria erostera ere. Dena den, uste dut etxebizitza bat izatea oinarriko beharrezana dela eta erakunde publikoei dagokiela hori bermatzea".

## PUNTUA

**GOTZON ELIZBURU****Hemen dago jada**

**L**arrialdi klimatikoa hemen dago. Nafarroan ikusi ditugun sute latzak, zalantza gutxi gabe, giza jarduerak eragindako klima aldaketaren ondorio dira eta gero eta gehiago gertatuko dira muturreko halako fenomenoak.

Lurra 1,5 gradutik gora berotzen bada izango dituen ondorioak atzeraezinak eta katastrofikoak izango dira gizateriarentzat. 2050 Erako Euskal Herriak bere CO2 emisioak %7,5 murriztu behar ditu urtero. 30 urtean %4,3 baino ez ditugu murriztu.

Ez daukagu, beraz, denbora asko, baina badaukagu nondik ekin. Egun agintean dauden politikariek, ohi bezala, ardura norbanakoon gainean jartzen ari dira: birziklatu ezazu (baina atez atekorik ez), argiaren kontsumoa aurrezteko neurriak har itzazu eta abar.

Baina hemen egiturazko aldaketak behar dira. Merkatu jainkoa ez da erronka honi heltzeko gai edo okerrago, katastrofean sakondu dezake interes korporatiboen lehiak. Merkatua interbenitu eta egiturazko planak behar dira: zer egingo dugu energiaren kontsumoa murriztu eta elektrifikatzeko?

Zer egingo dugu, kotxea hainbeste hartu beharrik gabe, gure mugikortasuna murrizteko? Zer egingo dugu elikadura kateak murriztu eta gerturatzeke?





# Aldaketa urtea herriko komertzioetan

Aurtengoa aldaketa urtea izango da Soraluzeko komertzio txikien sektorean. Negozio batzuk eskualdatzeko prozesuan sartuta daude, beste batzuk itxi egin dituzte eta irailean, Eroski taldeak supermerkatua zabalduko du Etxaburuetan. Aldaketa horietako batzuen xehetasunak eta azken urteotan komertzioan gertatzen ari den bilakaeraren berri jaso du erreportaje honek.

Testua eta argazkiak: **Ubane Madera eta Egoitz Unamuno.**



**B**istakoa da azken urteotan zerbitzuen sektorean aldaketa handiak ari direla gertatzen, besteak beste, kontsumo ohitura berriak eta online salmentak gora doaz, etxerako banaketa enpresen jarduna haziz doa, zentro komertzial handiak ugaritu dira... Eta Soraluze ez da salbuespena izan. Aldaketa horiek gogor ari zaizkio eragiten herriko jarduera komertzialari.

### Hamasei itxi eta bost zabaldu

Azken sei urteotako datuei erreparatuz gero, herriko komertzioek izan duten bilakaeraren balantzea ez da oso positiboa. 2016tik herrian 16 komertzioz itxi dituzte atek: tabernak (3), harategiak (2), frutadendak (2), ileapaindegia, mertzeria, gozotegia, motor-denda, oinetako denda, banketxea, drogeria, azokako baserritarra eta serigrafia zerbitzua. Bi kanpora joan dira: argazki denda eta edari banatzailea. Eta gremioetan 4 zerbitzu gelditu dira bertan behera: igeltseritza (2), galdaragintza eta pintorea.

Txanponaren beste aldean daude azken urteotan herrian atek zabaldu dituzten dituzten 5 zerbitzuak: osteopatia zentroa, tatuaia zerbitzua, fruta-denda, yoga zentroa eta arte galeria; eta erretiroagatik eskualdatu dituzten 6 saltokiak ere: harategiak (2), aroztegia, taxi zerbitzua, mekanika tailerra eta farmazia. (Datuen iturria: Soraluzeko komertzioen gida. Plaentxia.eus)

Herriko jardun komertzialik gehiena nagusiki herriaren erdialdean kokatua dago.

# Etxabe harategiak badu erreleboa

Ekaina hasieratik, Ainhoa Zubizarreta *Txanbuak* eta Jon Elizburu *Kiruk* praktiketan dihardute Iñaki Etxaberen harategian, erretiroa hartzera doan harakinaren saltokiarekin segitzea erabaki baitute bi soraluzetarrek. "Arratsaldeetan etortzen gara, zapatu arratsaldeetan ere bai, txorizoak-eta egitera. Iñakiren errezetarioa landuko dugu", kontatu dute.

## Abuztuan

Lanean, berriz, abuztuan hasiko dira. "Hasteko garai ona da. Jende gutxi dago, herriari zerbitzua emango diogu eta guk ikasteko modurik onena da. Bion artean hartuko diogu haria lanari eta jendeari", dio Zubizarretak. "Gainera, Iñakik berak ere, abuztuan bakarrik astebete ixten du", ekarri du gogora Elizburuk. "Eta gu ere hemen egongo gara, ez ditugu bakarrik lagako", gaineratu du Etxabek.

## Iñakiren biderei eutsi

Saltokiaren ezaugarriei dagokienez, bi gazteek Etxaberen bide beretik segitzeko asmoa dute. "Dena mantenduko dugu eta garai berriak eskatzen duenari erantzuten ahaleginduko gara. Rantxerek ere jarraituko dute eta jendeari eskatuko diogu ezkontzetako argazkiak ekartzeko hemen ipintzeko (barre)", dio *Txanbuak*.

Elkarrizketa egin bitartean, lan eta lan segitzen dute biek, pikatua egiten ikasten, kuxtiloarekin zelan moztu...



Ainhoa Zubizarreta, Jon Elizburu, Mari Carmen Amoros eta Iñaki Etxabe. F. OREGI

Badakite egiteko handia dutela. Baina gogotsu daude. Gainera, aitortu dute amets batengatik sartu direla abentura honetan. "Behin esan nion, *Jon, ametsetan egin dut harakin moduan egin behar dugula*; nik ere bai! Ba orduan listo!", kontatu du Ainhoak.

## "Erosketak herrian"

Saltoa ematera ausartu dira, bai. Baina ez itsu-itsuan. Batetik edo bestetik, biek dute esperientziaren bat arloan. "Ni aspaldi nabil fruta-dendan lanean eta Ainhoa Arcelusenean hasi zen lanean. Gainera, Ainhoa sukaldaria da eta badauka ideia apur bat elikagaiez. "

Iñaki Etxabe harakinarendako ere pozgarria da ikustea harategiak segida izango duela. "Guretzat ilusioa

ZUBIZARRETA ETA  
EZLIBURU ABUZTU  
HONETAN HASIKO DIRA  
HARATEGIAN LANEAN

ere bai. Norbaitek hartzea nahi badu... Guk hemen 43 urte egin ditugu. Gainera, hauek gazteak dira, jende ezaguna ere asko dute eta euren lagunak eta tartekoak etortzen badira..." Mari Carmen Amorošek dioen moduan, "negoziok zabalik mantentzeko egin behar dena herrian kontsumitzea da". Segituan gaineratu du Ainhoa Zubizarretak: "Maite duguna baino gehiago maite behar dugu herria. Herria maitatzea da herrian erosketak egitea, herria zaintzea eta herritarak zaintzea". Jon Elizburuk ere gehitu du alea: "Merezi du norbait animatzea arrandegia hartzera ere".

## "Zerbait Plazentziakoa"

Agurtu aurretik, harategiarendako izenari buruz ere jardun dute: "Ideiak dira Okelia, Tajadia... zerbait Plazentziakoa. Guk xerra eta halakorik ez dugu erabiltzen. Dena den, igual bukatuko dugu jartzen Ainhoa eta Jon, edo *Kiru* eta *Txanbu*, batek daki".

# Soraluze Motor da orain

Felix Unanuek (Soraluze, 1957) 22 urte egin ditu Autos Felix tailerrean eta apirilean Asier Piresi (Elgoibar, 1986) pasatu dio tailerraren ardura osoa. Ordutik, Soraluze Motor da tailerraren izena.

Iazko udazkenean erabaki zuen Felixek tailerra traspasatzea. "Egia esateko, oraintxe bizi nintzen ondoen eta pentsatzen nuen hirogeita hamar urtera arte edo jarraitzea. Baina Inmak iragarkia ipini zuen eta azaldu zen jaun hau (Asier) ardura hartzeko prest, ondo prestatuta, eta ba bale, hartu dezala. Gero iktusak eman zidan eta horrek bizkortu zuen dena".

## "Gogotsu" eta "ilusioz"

Asierrek "gogotsu" ekin dio etapa berriari. Mekanika ikasitakoa da Mekanika eta hamabost urtez Elgoibarko tailer batean jardun ostean heldu da Soraluzera. "Uste nuen bazela garaia tailer baten ardura hartzeko, baina lehengo tailerreko jabeak ez zuen nahi tailerra saltzerik. Orduan ikusi nuen Felixen tailerraren iragarkia eta esan nuen, ba oraintxe da momentua eta deitu nion. Inmarekin eta Felixekin berba egin nuen, baldintzak adostu genituen eta aurrera egitea erabaki nuen. Ilusioz eta gogoz nago, baina urduri ere bai, lan berri asko direlako. Zorionez, Inmak eta Felixek asko laguntzen didate eta oso eskertuta nago".

"Erritmoa hartzen" dihardu. "Batzuetan lan gehiegi hartzen



Felix eta Asier tailerrean.

dut, hurrengoan, gutxiegi. Hori hobeto kudeatzen ikasi behar dut". Felixek "lasaitasuna" aholkatu dio. "Jendeak ez zaitzala zoratu. Lana hartu, amaitutakoan deitu eta listo. Zu lasaiago ibiliko zara eta bezeroa ere bai".

Etorkizunean, zerbitzu berriak ezartzeko asmoa du Asierrek, esaterako, "aire girotua konpontzeko makina erosita" baina momentuz "orain arteko zerbitzuen mailari eustea" du helburu.

## "Dena" aldatu da

Felixek bizitza guztian zehar lan egin du mekaniko modura. "Elgoibarren ikasi nuen pintxe modura zazpi urtez. Gero, 1983an, Morgado tailerrean Txurrukenen eta handik etorri nintzen Karakate Ford-en tailerrera. 2000. Urtean

"ILUSIOZ ETA GOGOZ  
NAGO BAINA URDURI  
ERE BAI, LAN BERRI  
ASKO DIRELAKO"

zabaldutako nuen Autos Felix". Harrezkero berak eta Inmak lan egin dute bertan: "Inmak administrazio lanak egin izan ditu eta sekulako laguntza eman dit, bestela ezingo nuen dena egin".

Urteotan lanbidean izan diren aldaketek galdetuta, Felixek dio "dena" aldatu dela, batez ere, "elektronika" sartu delako. "Hori beste mundu bat da, konplikatuagoa eta makinak behar dira denerako". Autoen kalitateari buruz, berriz, "orain auto gehiago dago, baina matenimendu lanetan askoz gutxiago lan egiten dugu. Askok uste dutenaren kontra, lehen autoek gehiago huts egiten zuten orain baino. Lehen 2.000 kilometrorekin aldatzen zen olio eta orain 20.000 rekin. Lehengo autoak gogorragoak zirela? Gezurra."

*Oharra: "Espero dugu Soraluzeko jendea urte guztiotan gurekin portatu den bezain ondo portatuko dela Asierrekin. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko guztioi!". Felix eta Inma.*

## Irailean zabalduko dute Eroski



Saltokia egokitzeko obrak egiten dihardute asteotan.

Hasita daude Eroski City saltokia egokitzeko obrak, Estazino kaleko 2. zenbakiko garajeetan. 350 metro karratuko saltokia egokitzen dihardute, biltegi bakoa, eta, aurreikuspenaren arabera, irailaren bigarren hamabostaldian zabalduko dute, "ezustekorik ez bada".

### **Enbasatutakoak, freskoak...**

Eroski Taldeko Komunikazio arduradun Kristian Prietok emandako xehetasunen arabera, honako produktuak salduko dituzte Soraluzeko establezimenduan: enbasatutakoak (haragia, txarkuteria eta arraina barne), ontziraturakoak, barazkiak, fruta, garbiketarako produktuak eta drogeria produktuak. Hortaz aparte, bere laba propioa izango du, beraz, ogia, opilak eta bestelakoak bertan egingo dituzte.

Produktu freskoei dagokienez, berriz, Prietok

azpimarratu duenez "tokiko produktuetan" jarriko dute "fokua". "Oro har, ahal den guztietan, Eroskietan eskualdeko produktuak saltzen ditugu, batez ere Gipuzkoan. Osterantzean, Euskal Autonomia Erkidegoko gainontzeko saltokietan komunean ditugun produktuak salduko ditugu, Idiazabalgo gazta, bertako sagardoa, bertako haragia...", esplikatu du Komunikazio arduradunak. Hark emandako xehetasunen arabera, liburuak, jostailuak eta halakoak, berriz, ez dituzte salduko.

### **Astelehenetik zapatura zabalik**

Funtzionamenduari dagokionez, astelehenetik

ASTELEHENETIK  
ZAPATURA ZABALDUKO  
DUTE, 09:00ETATIK  
21:00AK ARTE

zapatura bitartean zabalduko dute saltokia (biak barne), 09:00etatik 21:00ak arte, eten bako ordutegian. Gainera, erosketa etxeraino eramateko etxez etxeko zerbitzua erabilitzeko aukera ere izango dela iragarri dute. Guztira, 10 langile ibiliko dira lanean eta frankizia modura funtzionatuko du. Azken puntu horrekin lotuta, frankizia modura funtzionatzeak esan nahi du, besteak beste, Soraluzeko Eroskirako langileak frankiziaren kudeatzaileak kontratatuko dituela eta ez Eroski Taldeak.

Bestalde, frankiziaren kudeatzaileari buruz galdetuta, Prietok adierazi du ez dutela mota horretako informazioirik ematen.

EROSKETA ETXERAINO  
ERAMATEKO ETXEZ  
ETXEKO ZERBITZUA  
IZANGO DU



## Iñarra harategia, kutxazaina, arrandegia eta Autoservicio Amparo

Iñaki Iñarra harakinak apirillean iragarri zuen moduan, berak aurtengo udan erretiroa hartuko duen arren, harategiak zabalik jarraituko du, Maria Rosa Congregadoreen eskutik. Hark martxoaz geroztik dihardu Iñarrarenean ofizioa ikasteko praktikak egiten, abuztuaren amaieran harategiaren kargua hartzeko asmoarekin, hasierako hilabeteetan Iñarraren laguntzarekin.

### Sabadellen kutxazaina

Bestalde, beste zerbitzu bat martxan jarriko dute, iazko urrian itxi zuten Sabadell-Guipuzcoano banketxearen kutxazaina. Santa Anako arkupeetan, Aritz Laskurain Osteopatia Zentroaren



Juan Mari arrandegia.

ondoko lokala egokitzeko obra egiten ari dira.

### Arrandegia eta Amparo

Saltokietako mugimenduen errepasoarekin bukatzeko, oraingoz, jarraipenik izango ez

duen saltokitako bat arrandegia da. Udan itxiko du Juan Mari Gurrutxaga arraindunak erretiroa hartzeko eta berretsi duenez, oraingoz, ez dago inor arrandegiarekin segitzeko interesa duenik. Gainera, Gurrutxagak zail ikusten du jarraipena emango dion norbait agertzea. "Jendea ez dago prest 04:00etan arrain bila joateko, zapatuetan lan egiteko... Gainera, Soraluzen asko jaitsita dago arrain salmenta". Eta oraingoz, jarraipenik edo erreleborik ez duen beste saltokia Autoservicio Amparo da. Bertako ugazabek esandakoaren arabera, ez da inor azaldu negozioarekin interesatuta.

## Berriro ere zabaldu egingo dute Edurtza taberna

Saltokietan ez ezik, herriko hainbat tabernetan ere aldaketak izango dira datozen hilabeteotan.

Aldaketarik esanguratsuenetarikoa bat da Santa Ana kaleko Edurtza taberna berriro ere zabaldu egingo dutela. Oraingo honetan, tabernaren jabe den familiako Luis Ariznabarreta Portalesen eskutik dator irekiera. Haren asmoa irailean bertan zabaltzea da; tabernaren kudeatzailea zein izango den, berriz, oraindik ez dute guztiz argi. "Asmoa da taberna irailean bigarren hamabostaldian zabaltzea, lehenago bada ba hobeto, baina seguruenik hori ez da



Edurtza taberna.

posible izango, gauza asko dago egiteko" esan du Ariznabarreta Portalesek.

### Familiak kudeatuta

Hark gaineratu duenez, amarena da taberna. Urte

askoan egon da errentan eta egoera horri buelta ematea erabaki dute, taberna, zela edo hala, atzera ere familiaren eskutik kudeatzeko.

### Kafetegi-jaretxea

Edurtza taberna aurtengo apirilaren 19tik dago itxita. Errentan emanda, berriz, azken 21 urteotan egon da, hiru bider.


Herriko taberna historikoetako bat da berau, 50-60 bat urte ditu. Kafetegi-jatetxe moduan zabaldu zuten eta ezagun askoak ziren bertako sukaldeko gutziak. María Luisa Portales Pérez 17 urtez izan zen Edurtzako sukaldaria.

## Itxaropenako taberna itxi eta futbol zelaikoa zabaldu

Tabernei dagokienez, berriz, beste aldaketa esanguratsu bat izango da ekainaren 30ean Itxaropena Erretiratuen Elkarteko taberna itxi egingo dutela, gaur egun berau kudeatzen dutenek laga egingo dutelako.

### "Ahalik eta lasterren"

Soraluzeko Udalean gaiari buruz galdetuta, Patricia Borinaga Gizarte Ongizate Saileko arduradunak esplikatu du "momentuz" ezin dutela "zehatz-mehatz ezer esan". Azpimarratu du Udalaren nahia dela tabernaren kudeaketaz arduratuko den beste norbait izendatzea ahalik eta lasterren. "Gure nahia da taberna ez



Itxaropena taberna.

ixtea, edo ixten bada, ahalik eta lasterren zabaltzea; hori bideratzen ahaleginduko gara". Izan ere, iaz, birritan atera behar izan zuten Itxaropena Erretiratuen Elkarteko taberna lehiaketara eta hamar hilabetez

izan zen itxita. Orain, egoera hori saihestu nahi dute. "Ahalik eta prozedura motzena baliatuta, jarraipena emateko aukera eman ahal duen bidea aztertzen ari gara".

### Futbol zelaikoa

Bestalde, orain arte Itxaropena taberna kudeatu dutenek aurrerantzean Ezoziko futbol zelaiko tabernaren ardura hartuko dute. Epeei buruz galdetuta, erantzun dute oraindik ezin dutela ezer zehaztu.

Azken urtean, Institutuko ikasleek kudeatu dute futbol zelaiko taberna, ikas-bidaiara joateko diru-iturri modura baliatuz.

**KLB6**  
Kalebarran 8  
943 87 71 28  
Muller-erretiratu modokoak  
f  
www.kalbarran.com

BSB *Paga Jaso* **ISOLID** **EBURICH** **new balance**

VERO MODA

**IZZQUIRRE**  
Igeltseritza

Erakiri berriak • Kalitateko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltseritza

30 urteko esperientzia • 610 838 913 • 649 967 289

**MENDIZABAL**  
okidegia  
Ogia • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarran 10  
Tel.: 943 75 13 99

**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) • 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**Kontulan**  
abokatuak

Errenta sarrapenak • Administrazio lanak  
Trafikuko burokratza • Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen kontabilitate/ideoziazak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. euk. 20590 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 61 82

**Carpinteria MANU Aroztegia**

Atrak: Bantarak, Protokotak, Sukaldeak, Tinkadak.

Manuel C. Fuentes  
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25

**KM design**  
Kira Muntatak

943 76 99 85

kmuntatak@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amalgama 5 BERGARA

Disenju eta Fabrikazio lanak  
Sukaldeak  
Horma-oinarriak  
Logistikak  
Zeruzak  
Atrak...

Arotzeria lanak oro har  
Instalazioak

**ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA**

erronda dekoratiboa industrialak

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30



Soraluzeko hockey familia osatzen duten 80 bat lagun elkartu ziren denboraldi amaierako festan.

## Aurtengoarekin "pozik"

Marras Irristaketa Taldearen datorren urterako erronka nagusia da 3 maila izatetik 5 izatera pasatzea eta horretarako finantzazioa lortzea

Marras Irristaketa Taldeak itxi du aurtengo denboraldia. Batzar nagusian, aurtengoaren balorazio positiboagoa egin zuten, eta datorren denboraldiari begira jarri ziren. Azpimarratu zutenez, kirol taldearen

helburuetako bat da hiru maila izatetik bost maila izatera pasatzea eta horrek diru kontuetan eragina izango du. "Aurrekontua asko handituko da eta bideragarri izateko lanketa egingo du taldeak:

udalarekin elkarlana, auto-finantzazioari lotutako ekimen gehiago...". Halaber, gogora ekarri dute ekainaren 24ra arte dagoela zabalik datorren denboraldirako izena emateko epea. Horrekin batera, Marraseko jokalaria Ane Bastardo nabarmendu dute; izan ere, Euskal Selektioarekin lehiatuko da autonomien arteko Espainiako txapelketan, ekainaren 30etik uztailaren 3ra.

Jokalari guztiak omenduz eta entrenatzaileei oparitxoak eginez agurtu zuten denboraldia, ekainaren 17an.

## Kopa ekarri zuten etxera infantilek

Infantil eta jubenil mailek egindakoari esker, balorazio positiboagoa eginez bukatu du denboraldia Sorak. Zapore gazia laga dien bakarra gorengo maila galdu izana da. Edozelan ere, datorren denboraldira begira jarrita dira. Uztailaren 19an egingo dute batzar nagusia, antzokian, 19:00etan. Bazkide guztiak daude deituta.





Eguaztenean eman zizkieten garaikurrak pilota elkarteko ume guztiei.



Debarroko txapelkunak.

# Hobetzekoekin baina pozik

Aurtengo denboraldia bukatuta, Soraluze Pilota Elkarteko arduradunak "orokorrean, pozik" daude egindakoarekin

Pilota jaialdia eginez eta pilotari guztiei garaikurrak oparituz agurtu du ikasturtea Soraluze Pilota Elkartek, aste honetan.

Osterantzean, balorazioari dagokionez, Aitor Atxotegik esan du, "orokorrean, pozik"

daudela, baina badutela non hobetu. "Debarroko txapelketa, kadete zein nagusi mailan, biak irabaztea lortu dugu, beraz, pozik. Bestalde, kadeteek maila oso ona eman dute urte osoan, Eki Amuategik, Mikel

Caramanzanak eta Ibon Ibarrek. Pilota eskolako umeak ere maila oso onean ibili dira, bai benjaminak eta baita alebinak ere, Debarroko eskolartekoan onenen artean sailkatzea lortu zuten. Beraz, orokorrean, pozik, baina Gipuzkoako Txapelketan zein Euskal Ligan hobetzeko daukagu. Gipuzkoako Txapelketan helburua zen Ohorezko Mailara igotzea, baina ezin izan genuen finalerdietarako sailkatu. Eta Euskal Ligan, lesioak tarteko, ez ginen finalerdiak jokatzera sailkatu.

## Boxeo erakustaldia Soraboxeko Ixa Rodriguezen eskutik, Bergaran

Uztailaren 2an, Soraboxeko Ixa Rodriguezek antolatuta, boxeo erakustaldia egingo dute Bergarako Udal Pilotalekuan. Zortzi bikote izango dira lehian, horietatik bost boxeolari Sorabox elkartekoak eta gainerakoak Bizkaiko zein Gipuzkoako bestelako klub batzuetakoak. Rodriguezek esplikatu duenez, bere asmoa

urtean hiru boxeo ekitaldi-edo antolatzea da; Diputazioko Emakumeak Mugimenduak ekimenaren babesarekin jardungo da horretan.

### Zalakainendako

Bergarako saioari dagokionez, 18:00etan hasiko da. Sarrerak salgai daude, 15 euroan alde aurretik edo 20 euro bertan

erosita. Fontoiko tabernan edo telefonoz eros daitezke: 676 86 69 22/ 676 65 03 41.

Boxeo erakustaldia Bergaran egiteari buruz galdetuta, Rodriguezek esplikatu du Soraboxeko Josu Zalakain eta Andoni Kortabarria bertakoak direla. Gaineratu du batik bat Zalakaini begira antolatutako ekitaldia dela, zorte txarra tarteko, hark boxeolari moduan borroka bakarrean parte hartu ahal izan baitu orain arte.



Astoarekin eta burdiarekin 2019ko jaietan.

# San Andresko jaiak bueltan

Uztailaren 9an ganadu feria, harrijasotze saria eta erromeria egingo dituzte.

Uztailaren 9an, 10ean eta 11n egingo dituzte jaiak San Andresen, orohar pandemia aurreko egitaraua berreskuratuta aldaketa txiki batzuekin. Hasteko, bariku arratsaldean, jaien hasiera

iragarritz, auzotarrek makala altxatuko dute ohikoa den moduan. Zapatu goizean, auzoko abereen eta erreminta zaharren azoka egingo dute. Arratsaldean, harrijasotze lehiaketa (aurreko urteetan

domekan egin izan da), ostean, afaria eta afalostean erromeria, Izer eta Alabierrek girotuta.

## Domekan pilota eta zezenak

Domekan ere egitarau zabala izango da, baina aurreko urteetako baino arinagoa. Eguerdian meza eta, ostean, esku pilota partidua, Mendiluze eta Laburu bertsolarien saioa eta Mendotz anai-arreben trikiti musika. Arratsaldean, berriz, zezentxo eta poniak izango dira umeendako eta bola-premioa bolazaleendako. Gau partera afariak eskainiko dituzte elkartean.

## Astlehena azuotarrendako

Astlehena, betiko legez, auzotarren eguna izango da. Eguerdian meza eta umeendako jolasak izango dituzte eta bazkaritan Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek kantatuko dute. Bazkal ostean, dantzarako erromeria girotuko dute Lajak eta Lutxurdiok. Iluntzean, emakumeen bola txapelketa jokatuko dute bolatokian. Gauean, afaria eta erromeria.

## Abesbatza eta Bergarako orfeoia

Ezoziko Ama Abesbatzak eta Bergarako Orfeoia kontzertu bikoitza eskainiko dute asteburuan. Lehena, zapatuan, 20:00etan, Soralezeko Udal Pilotalekuan eta bigarrena, domekan, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian. Emanaldietan Mozarten bost obra sinfoniko-koral interpretatuko dituzte.



# Imanol Lopez txistularia

'NERE PLAZENTZIATXO' PIEZA SORTU ZUEN, ANTZINAKO HIRU MELODIA UZTARTUTA

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: IMANOL LOPEZ ARTOLAZABAL

Imanol Lopez Artolazabal irakasleak, txistulariak eta musikariak (Soraluze, Iturburu kalea, 1955) 38 urte daramatza Eibarren bizitzen, baina argi dio: "Ni plazentziatarra naiz". Esan bakarrik ez. Egin ere egiten du. "Orain egunero nator. Baina horrez gain, urtean birritan, gutxienez, azaltzen naiz Plazentzian txistua jotzera. Santa Zezilian eta Santa Agedan, batzuetan jaietan ere. Eta Mikel Santiagoren ospakizunean ere izan naiz, zelan ez", kontatu du.

## 'Nere Plazentziatxo' kalean

Hain justu, Santiagoren Profesa ospakizunean interpretatu zuten Lopezek sorterriari dion maitasunaren erakuslerik garbiena den *Nere Plazentziatxo* pieza, berak sortutakoa. 2008-2009an estreinatu zuten, behin baino gehiagotan jo dute orain arte eta ekainean ere, Soraluzeko Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertuan jo dute pieza bera. Soraluzeko txistulari beteteranoak dionez, "larregiko sentsazio ona" eragiten dio berak sortutako piezaren ibilbide horrek: "Musikan sarri gertatzen da gauzak egin arren ez izatea biderik horiek ateratzeko; distantzia gordeta, Escuderok, Solozabalek... esaten zuten obrak eginda izan arren, inork ez zituztela estreinatu nahi".



Imanol Lopez Artolazabal txistua jotzen, Soraluzen.

## Hiru melodia ezkonduta

Hiru melodia ezkonduta sortu zuen *Nere Plazentziatxo* Imanol Lopezek. "Dira hiru melodia etxean entzun ditudanak txikitatik. Amama Digna Artolazabalek eta ama Isabelek asko kantatzen zuten eta eurei entzunda. Lehen melodia da Soraluzeko bandarena. Bigarren melodia Eibarko kantutegian ere jasota dago. Nire amamak esaten zuenez, Elgetako errekadistak kantatzen zuen, errekaduak Gasteizera egiten zituen batek. Nire ustez hura zen Juanito

**ERREGEEK EKARRI  
ZIOTEN LEHEN TXISTUA  
IMANOL LOPEZI, BERAK  
ESKATUTA, 13  
URTEREKIN**

Oiartzabalen mendizalearen aitaita edo birraitaita, baina ez dut hori kontrastatu. Eta hirugarren melodia apur bat konprometitua da, karlistadekin lotutakoa. Nik letra aldatu nion. Amak esaten du bere amandreak abesten zuela (hiru kanten estrofak ondoko orrian).

## Basauri, Orbea eta Gabilondo

Lopez 13 urterekin hasi zen txistulari; Erregeek ekarri zioten lehen txistua, "nik eskatuta", dio. Orduan, (1960ko hamarkadan), txistuak garrantzi handia zuen. "Umetan San Inazio Bandak arratsaldeetan bailableak jotzen zituzten eta atsedendian txistulariek, baina gainera, ziren txistulari munizipalak. Eta Maristekin joaten ginen mezetara eta inoiz etortzen zen udal ordezkaritza, txistulariekin, Alkate doinua jotzen".



Lopez Alberdirekin eta Txurrukarekin.

Ikasten, berriz, Jose Angel Basaurirekin hasi zen, Erregetxean. "Oinarrizkoak ziren Jose Angel Basauri eta Jesus Orbea, baina Agustin Gabilondo *Etxetxo* ere etortzen zen. Ikasle ginen Juanjo Arrieta, Ander Epelde, Maite Gorostidi, Arrate Basauri, Aitor Amor eta neu. Debuta izan zen 1971ko Santa Zezilia egunean. 07:00etan geneukan kalejira, *Ikusi Merndizaleak*. Iraun zuen Kontzejupetik Plaza Zaharreraino, hasi zen zaparrada bat... Hor amaitu zen gure debut guztia".

Baina noski, txistulari jarraitu zuten. "Hasieran, hiru pieza bakarrik genekizkien. Asteburuetan elkartzen ginen eta plazer hutsa zen". Entseatzen eta ikasten, taldea bera ere handitzen joan zen: "Egon ziren Isma Peñalba, Ina Oregi, Antxon



Lopez txistua jotzen, 80ko hamarkadan.

Uriarte, Juanjo Urrutia, Sabin Perez, Jabi Perez Garcia, Alberto Gallastegi, Nerea Unamuno, Alexander Amor... Dantza taldearekin ere ibiltzen ginen. Lehiaketetara ere joan ginen..."

#### Hasieran intentso

Horrela, 1970-80ko hamarkadan txistulari eta musikari bizitza intentsoa izan zuen Imanol Lopezek. 80ko hamarkadaren erdian, berriz, biolina, pianoa, solfeo, harmonia, konposizioa... ikasi zituen; 1999ra arte segitu zuen musikako goi mailako ikasketekin. Lagatzen joan zen Elgoibarko institutuko zuzendaritzan sartu eta ikastetxeko zuzendari izan zelako. Hala ere, bere izaeran betiko barneratuta ditu musika eta txistua. Orain ere, txistua Eibarren entseatu eta Plazentzian jotzen segitzen du.

## 'Nere Plazentziatxo'

"Piezaren izena da nire harrokeria. Tchaikovskyren 2. sinfonia da *Mi Pequeña Rusia*, berarendako zen Ukraina. Batetik, horrekin jokatu dut eta bestetik etxean eta edadeko jendeari askotan niolako *hau da gure Plazentziatxo*."

#### Lehen melodia:

Elorrixa ta Txitia, Amable eta Haizia, Motxa eta konpainia, Plazentziako bandia.

#### Bigarren melodia:

Txikitari bat, perruan bi, errealian dozena erdi errekadurik badezu ekarri neri

#### Hirugarren melodia:

Dala zazpi mende izan zendun sortzia Kalegoen, Kalebarren zure kaliak Ura beste dozu gatz pilar ugaria Zure mendiak zure jendia nere Plazentzia maitia zelan ez sentitu harrotasun handia

# Agur Santa Anako 2. zenbakiari

AURTEN BOTAKO DUTE ETXEA ORDENAZIOZ KANPO DAGOELAKO

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: INDALECIO OJANGUREN,

MERTXE GALARRAGA ETA UBANE MADERA

Joan den mendearen hasieran (1935-1945 urteen bitartean) eraiki zuten Santa Ana kaleko 2. zenbakiko etxea. Treviñotarrak eta Irma Aldazabal Lakuesta izan ditu azken jabe, harik eta Udalak etxea erosi zuen arte, eraikina eraitsi ahal izateko. Mari Carmen Treviñok berak entzundakoaren arabera kontatu du laster desagertuko den etxe horren historia.

## Etxea eraiki

"Joan den mende hasieran, Kalebarreneko eta Santa Anako atzeko parteko erriberak inguruko bizilagunek erabil zitzaketan, ortu modura. Santa Ana kaleko 2. zenbakiko etxea ez zen existitzen, ezta ibaitik Santa Ana kaleko 4. eta 6. zenbakietako terrazak ere. Baina denborarekin gauzak eraikitzen hasi ziren erribera horretan.

Santa Ana kaleko 4. zenbakiko etxea, berriz, Patricio Iraolarena (Asunen, Sinforen, Pastoraren, Juanitoren eta Luisen aita) zen. Etxe horrek ibai aldera begira zeuden, miradoreak zituen (oraingo etxe urdinak) eta Santa Ana kaleko 6. eta 8. zenbakiekin lerrotatuta zegoen. Iraolatarrek euren etxe ondoan txabola bat zeukaten, orturako erremintekin edo animaliekin-edo.

1916an, 4. zenbakiko etxea eta hari zegokion erribera zatia Lakuestatar anaien amari saldu



Santa Ana kaleko 2. zenbakiko etxea, gaur egun.

zizkioten. 1935. eta 1945. urteen bitartean, Victor Lakuestak eta haren anaia Luisen oinordekoek 4. zenbakiko etxeari miradoreak kendu eta txabolaren lekuan etxea eraiki zuten, Santa Anako 2. zenbakia izango zena. Denborarekin, 1963. urte inguruan, Roke Treviño Maiztegi 2. zenbakiko etxearen lehen eta bigarren solairuak erosi zizkion Luis Lakuestaren oinordeko bati. Gero, Treviñok bere oinordekoei eman zien etxe zati hori eta haiek saldu egin zioten Udalari. Lehen bebarrua (belardenda egon zenekoa), berriz, Edurne Lakuestak Eugeni Igartzabali (Arzabalagakoari) saldu zion; eta sotoa edo bigarren bebarrua, berriz, Irma Aldazabalena zen".

## Bi etxeak komunikatuta

Bitxikeria moduan, Treviñok kontatu du etxearen lehen

solairua, baldosa berdeduna ondoko etxearekin dagoela komunikatuta. Gaineratu du orain dela hainbat urte bere loba Mikel Treviñok etxea berritzeko proposamena egin ziola Udalari. Besteak beste, arku handi bat egin zion etxeari, jakinda Udalaren asmoa zela ibai bazterreko pasealekura bidea egitea. Treviñoren diseinuak pasabidea etxearen arku horretatik egin zuen. "Itsasontzi itxura ere eman nahi zion, etxearen forma aprobetxatuz eta proposatu zuen goiko parteari erabilera publikoa ematea, arma museoa-edo ipiniz, behin Udalak kalte-ordaina ordaindu ondoren; edo bestela eurek erabiliko zutela, etxea mantentzearen. Azkenean, Udalak kalte-ordainak ordaindu zizkien etxejabeei, baina etxeak ordenazioz kanpo segitu zuen





Etxearen margolan bat.

eta horren ondorioz, denborarekin, haren egoera okertzen joan da", esan du penaz Treviñok.

**Argazkietan eta margolanetan**

Kaskartu bitartean, baina, esan daiteke etxe hori dela Soraluzeko argazkietan edo Soraluzeri buruzko margolanetan gehien azaltzen dena. Adibidez, Itxaropena Erretiratuen Elkartean badaude bi margolan eta guztietan azaltzen da Santa Ana 2. zenbakiko etxea. Kutzabankeko bulegoan ere bada berau erakusten duen beste margolan bat. Akaso duen forma bitxiarengatik eta noski miradorearengatik askoren arreta erakarri izan du eraikin horrek.

Bestalde, etxearen beheko lokalak edo sotoak hiru

**ITXAROPENA  
ELKARTEAN ZEIN  
KUTXABANKEN ETXE  
HORREN GAINEKO  
MARGOLANAK DAUDE**

negozio mota hartu izan ditu historian zehar. Lehena izan zen Maria Torrerenena. Gozoak, gozokiak eta bestelakoak saltzen zituen. Oinetako-denda etorriko zen gerora, Arzabalagarena eta azkenik, Belarrak belar-denda egon zen hor, 2019ko uztailean arte. Urte hartan, aurri egoeran deklaratu zuten eraikina.

Orain, etxe hori bota egingo dute. Aurtengo otsailean Santa Ana kaleko 2. zenbakiko eraikinaren eraisketa lanak esleitzeko kontratazio-espeditentari hasiera eman ondoren, maiatzaren 4an berau eraisteko lanen kontratua izenpetu dute Soraluzeko Udalak eta Zanjadores y Desmontes S.A enpresak. Soraluzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren zehaztutakoaren arabera, eraikina ordenazioz kanpo dago eta oso kontserbazio-egoera txarrean. Behin eraikina eraitsita, espazio libre bat sortuko da Deba ibaiaren ertzean, hark utzitako orubean. Eraisketa lanok aurren hasiko dira eta 47.662,28 euroan esleitu dira.



Zubi Nagusia etxea eraiki aurretik.



Beste margolanetako bat.



R. Larrañagaren liburuan azaltzen da.

## ZORION AGURRAK



**Paule eta Lide**  
Zorionak! Ekainaren 25ean eta uztailaren 1ean, 7 eta 12 urte. Patxo handi bat etxekuen partez.



**Aina eta Lea Oregi**  
Uztailaren 12an 2 urte. 2 urte intentso bezain polit! Zorionak sorgintxo!



**Lide Viciosa**  
Ekainaren 21ean, 9 urte. Etxekuen partez, patxo handi bana!



**Jon Garitano**  
Ekainaren 17an, 9 urte. Etxekuen partez, patxo handi bana!




**Enara Garitano**  
Ekainaren 9an, 13 urte. Etxekuen partez, patxo handi bana!



**Iker Laskurain**  
Ekainaren 6an, 9 urte. Muxu handi bat etxekoen partez!!



**Maria Jesus eta Edurne**  
Zorionak guapiximas! Patxo handi handi bat etxeko danon partez!



urte. Zorionak!  
Etxeko guztien partez, bereziki zure izebaren partez.



**Gorka eta Eki**  
**Bollar**  
Abuztuaren 13an 36 eta 3 urte. Zorionik beruenak bixori! Elkarrekin barre eitxen jarrai deizuela!



**Ibai Soriano Sebal**  
Ekainaren 27an 3 urte. Zelako mutil haundixa ein zaran. Asko maitxe zaitxugu. Ondo-ondo pasau, familia guztian partez, batez be Perun partez.

## HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

### Hildakoak

Isabel Frango Santos  
Gema Telleria Zabala

### Jaiotakoak

Briana Ninoska Calix Rosales

**Hortz klinika**  
Erabil 1  
Tel.: 943 75 95 13

**Javier Alonso**  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.591

**Kaito Guztina**  
Odontologoa  
K.Z. 48.061.541

**27 urteko esperientzia**  
odontologia, protesiak,  
odontopediatria, ortodontia,  
inglantzak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko onakorra (DCE)  
ekainera, ortu eta tele.

**HNOS. BENITO**  
**ANIZAK**  
MUEBLES-ALTZARIAK

**Sukaldeak, logelak, egongelak,  
neurrira egindako altzariak...**

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

**Sorahuzeko**  
**Kooperatiba Elkartea**  
1910etik zaharkit

Arraindegia, janaria,  
errapak, etxeko tresnak,  
etsara eramateko zerbitzua

**Autobusetik ondoaldea:**  
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45  
**Larrietatik:** 09:30 - 13:00

**Kalebarren 4**  
Tel.: 943 75 13 45

Bizitzeko  
**GIPUZ KOA**

**5 PERTSONA BIZIPEN**  
BIZI ITZAZU!

**Ayoon eta Max**  
**Lina**  
**Phil**  
**Reyes**  
**Pablo**

ESKELAK

ESKELA

**Gema Telleria Zabala**



2022ko ekainaren 20an hil zen, 54 urte zituela.

Ederrak izan dira zurekin bizitako momentuak. Akelarre ederren batean elkartuko gara.

Jantokiko lankideak.

ESKELA

**Gema Telleria Zabala**



2022ko ekainaren 20an hil zen, 54 urte zituela.

Dantzan gozatu dugu elkarrekin eta dantzan gogoratuko zaitugu beti, lagun.

Dantzako lagunak.

ESKELA

**Gema Telleria Zabala**



2022ko ekainaren 20an hil zen, 54 urte zituela.

Gaur gure bihotzak hunkituta egon arren, zure hurbiltasun eta babesa izango da gure oroimen. Patxo handi bat, Gema, eta eskerrik asko gure artean egotearren.

Plaentxi HLHI.

**ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29**  
edo [eskelak@pilpilean.eus](mailto:eskelak@pilpilean.eus)

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

**Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Sorraluzen.**



**ASKE MAITE ASKE BIZI!** bertako  
igogailuak | ascensores

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus) GIPUZKOA 943 903 450

# GOKI

erreformak



## **FATXADA BIRGAITZEAK**

**S.A.T.E.**  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



## **ESTALKI ETA TEILATUAK**

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## **BARNE ERREFORMAK**

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## **IRISGARRITASUNA**

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## **BULEGO TEKNIKOA**

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42